2026 | 27

# ESKOLA KIROLA PROGRAMA



Bizkaia

kirolur
BIZKAIA
EUROPAKO
KIROL LURRALDEA
TERRITORIO EUROPEO
DEL DEPORTE

ESKOLA
KIROLA















2026 | 27

ESKOLA KIROLA

# EZAUGARRI OROKORRAK




Bizkaia

kirolur

BIZKAIA

EUROPAKO KIROL LURRALDEA

TERRITORIO EUROPEO DEL DEPORTE




# EZAUGARRI OROKORRAK

## 1. OINARRIA. XEDEA

Foru dekretu honen xedea da arauak ezartzea, Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2026/2027 denboraldirako jasota dauden kirol jarduerak arautzeko.

## 2. OINARRIA. ESKUMENAK

**1.** Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio eskoletako lehiaketak antolatu, kalifikatu eta baimentzea.

**2.** Ikastetxeek eta guraso elkarteek, klub eta kirol elkarteek, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak edo haien udal erakunde autonomoak edo kirolen udal fundazio publikoek eta Bizkaiko kirol federazioek, lehiaketak eta kirol jarduerak antolatu ahalko dituzte, honako arlo hauen arabera:

a) Ikastetxeek eta guraso elkarteek: euren ikasleentzako lehiaketak eta kirol jarduerak.
b) Klub eta kirol elkarteak: euren kirolariei zuzendutako lehiaketa eta kirol jarduerak.
c) Bizkaiko kirol federazioek: kadete kategoriako lehiaketak eta kirol jarduerak; hau da, 2026/2027 denboraldia bukatzen den urtean 15 edo 16 urte egingo dituzten ikasleentzako lehiaketak izango dira, eta dagokien federazio-lizentzia izan beharko dute.
d) Udalek edo haien udal erakunde autonomoek edo kirolen udal fundazio publikoek: euren lurralde eremuko ikastetxe eta ikasleentzako lehiaketak eta kirol jarduerak.




## 3. OINARRIA. BIZKAIKO ESKOLA KIROLA PROGRAMA

**1.** Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan jasotako jarduera guztiak honako kirol ibilbide hauetakoren baten barruan daude:

a) Kirolean parte hartzea. Ibilbidearen helburu nagusia da aukera ematea eskola-ikasle guztiei kirol eta jarduera fisiko ezberdinetan aritzeko. Horrela, kirolerako ohitura eta bizimodu osasungarria eurenganatzen lagundu nahi zaie.

b) Errendimenduari ekitea. Ibilbidearen helburu nagusia da, hala egin nahi duten umeei, erraztasunak ematea errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol batean hasteko.

c) Kirol talentuak eta promesak identifikatzea. Ibilbidearen helburu nagusia da haien gaitasun eta jokamoldeengatik kirol talentu edo promesa izan daitezkeela uste den eskola-ikasleak identifikatzea, aukeratzea eta garatzea.

**2**. Jarduera bakoitzaren helburu nagusiaren arabera, ibilbide batean edo bestean sartuko dira jarduerok. Bizkaiko Eskola Kiroleko programak honako jarduera hauek jaso ahalko ditu 2026/2027 denboraldian zehar:

a) Lehiaketa jarduerak hiru motatan banatzen dira, kirol mailaren eta helburuen arabera: parte hartzekoak, errendimenduari ekitekoak eta lehiaketa murriztuak.

-1. Parte hartzeko lehiaketak, izenak berak adierazten duen legez, edonork parte hartzekoak dira, eta ez da inolako hautaketarik egingo. Horien helburua da kirol modalitatea hobetzea eta jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzea.

-2. Errendimenduari ekiteko jarduerak lehiaketak dira, errendimendu jakin bat lortzeko helburua dutenak, partehartzaileak lehiaketa federatuetan sartu ahal izan daitezen, eskola garaia amaitu ostean. Parte hartzeko kupoak




ezartzen badira ere, nahiko zabalak dira, interesa duen edozein eskola-umek parte hartu ahal izan dezan.

-3. Azkenik, lehiaketa murriztuak ditugu: kirol talde mugatu batentzat sortutako lehiaketak dira. Kirolariak hautatzeko irizpideak kirol modalitate bat egiteko dituzten jarrera eta gaitasun errealak zein potentzialak izango dira. Hain zuzen ere, etorkizunean kirol elitean egon litezkeen pertsonak dira.

b) Irakaskuntza jarduerak lehiaketatik kanpoko kirol prestakuntzarekin lotutako jarduerak dira. Prestakuntza horren mailaren arabera, kirol jarduera izan daiteke hasierako jarduera (parte hartzea borondatezkoa da, eta kirol jakin batean hasten dira eskola-umeak) edo teknifikazio jarduera (entrenamendu-saioak dira, eta kirol jakin baterako gaitasuna dutelako hautatu duten eskola-ume talde bat hobetzeko egiten dira).

c) Detektatzeko jarduerak saio bakan batzuk dituzten jarduerak dira, eta horien helburua da kirol jakin batean errendimendu ona izateko gaitasun eta jarrera bereziak dituzten eskola-umeak topatzea.

d) Kirol eta kultur jarduerak, hau da, kirolari lotutako kultur jarduerak (kirol museoetara joatea, kirol baten historia ezagutzea…), eta aisialdiko jarduerak, hau da, kirola lehiarik gabe egiten dena (mendi-irteerak, zikloturismoa…).





## JARDUERAK (HASTEKO ADINA)

| | | | |
|---|---|---|---|
| IRAKASTEKOAK | Hasierakoak (benjaminaurrea) | Teknifikazioa (kimuak, 2. urtea) | Teknifikazioa (kimuak, 2. urtea) |
| LEHIAKETA | Parte hartzekoak (benjamina) | Errendimenduari ekitekoak (kimuak, 2. urtea) | Murriztuak (2. urteko kimuak) |
| DETEKTATZEA | 1. urteko kimuak | 1. urteko kimuak | 1. urteko kimuak |
| BESTE BATZUK | Aisialdikoak, kirola eta kultura (benjaminaurrekoak) | Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak) | Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak) |
| | Kirolean parte hartzea | Errendimenduari ekitea | Kirolerako talentuak eta promesak identifikatzea |
| | **IBILBIDEAK** | | |

## 4. OINARRIA. PARTE HARTZAILEAK

Honako hauek ahalko dute parte hartu Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2026/2027ko jarduereten:

**1.** Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztiak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, elkarte-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten kirol elkarte eta/edo taldeak, ikastetxe zein kirol elkarteei loturiko fundazioak eta Bizkaian bizi diren eta/edo Bizkaian eskolatuta dauden neska-mutilak.




**2.** HEZIKI eta udal-multikirol modalitateetan izena eman ahal izango dute  Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak, horietako guraso elkarteak eta ikastetxe horiei atxikitako kirol elkarteak edo fundazioak, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, haien udal erakunde autonomo edo kirolen udal fundazio publikoak.

**3.** Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak eta lurralde historiko horietako kirol elkarteak eta/edo taldeak. Edonola ere, eskabideak idatziz aurkeztu beharko dituzte, dagokien lurralde historikoan kirol arloan eskumena duen organoaren baimenarekin batera.

**4.** Araban edo Gipuzkoan bizi diren eta Bizkaian eskolatuta ez dauden haurrek izena eman ahal izango dute Bizkaiko eskola-kirolaren programaren barruan jasotako kirol-jardueretan, baldin eta ikastetxe bat, guraso-elkarte bat, kirol-elkarte bat edo klub bat ordezkatzen badute, bai eta ikastetxeei edo kirol-erakundeei lotutako fundazioak ere. Horiek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikokoak izango dira, eta dagokien Lurralde Historikoko kirol-arloko organo eskudunaren baimena aurkeztu beharko dute.

**5.** Egoitza Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan ez daukaten eta 2026/2027ko Bizkaiko Eskola Kirolaren Programan parte hartzea eskatzen duten entitate edota kirolariak. Kasu hauetan, eskabide bakoitza berariaz aztertuko da, eta jatorrizko tokiko kirol-arloko organo eskudunaren baimena beharko da.

**6.** 3., 4. eta 5. puntuetan jasotako taldeko lehiaketa-jardueretan parte hartzen duten entitateek edota banakako lehiaketa-jardueretan parte hartzen duten kirolariek ezin izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoa ordezkatu.




**7.** Bizkaiko Foru Aldundiak aukera izango du 3., 4. eta 5. puntuetan jasotako entitate edo kirolarien parte-hartzea ez onartzeko, parte-hartze horrek kirol-jardueraren antolaketa, bideragarritasuna eta kalitatea alda ditzakeen kasuetan.

## 5. OINARRIA. ENTITATE PARTE-HARTZAILEEN IZEN EMATEA ETA KIROLARIEN ETA TEKNIKARIEN ALTA

**1.** Izena emateko eskabideak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:
**https://www.ebizkaia.eus**

**2.** Izena emateko eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dagoen eredu ofizialaren araberakoak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

## 6. OINARRIA. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

**1.** Izena eman nahi duten entitateek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak haurrak eta nerabeak babesteko protokolo bat duela eta hura kudeatuko duen Ongizate Arduradun bat izendatu dela adierazten duena. Kirolariekin lan egiten duten pertsona guztiek kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa egin dutela ziurtatu beharko da.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak aurkezten duen eskabidean jasotako pertsona bakoitzari (zerbitzu ematen dieten lan-kontratudun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztietatik, baldin eta adingabeekin harremana izan ohi badute),




jakinarazi zaiola Bizkaiko Foru Aldundiak, ahal denean, elkarreraginean jardungo duela sexu-delituei buruzko datuak lortzeko.

**2.** Lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten eskola adinean diren kirolarien alta adin txikiko horien aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak eskatu behar du. Eskatzailea aurkezlea eta parte-hartzailearen ordezkaria izango da.

Izena emateko eskaerak honako agiri hauekin aurkeztu beharko dira:
a) Adin txikikoa den parte hartzailearen ikasketa-zentroaren ziurtagiria.
b) Adin txikikoa den parte hartzailearen argazkia.
c) Aitak, amak, legezko ordezkariak edo adingabearen zaintza duen pertsonak online pilula egin izana egiaztatzen duen diploma: "Gurasoentzako eskola-kirolaren gakoak". Prestakuntza hori webgune honen bidez egin daiteke: **www.bizkaia.eus/eskolakirola**

**3.** Lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten teknikariak, adin nagusikoak badira, alta eskatu behar dute.

Teknikari horiek  adin txikikoak balira, alta aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak eskatu beharko du. Eskatzailea aurkezlea eta parte-hartzailearen ordezkaria izango da.

Honako hauek hartuko dira teknikaritzat: kirol-zuzendaria, kirol-arduraduna, arduradun administratiboa, entrenatzailea, laguntzaileak eta praktiketakoak, zein Ongizate Arduradun gisa jarduten dutenak.

Izena emateko eskaerak honako agiri hauekin aurkeztu beharko dira:
a) Kirol-titulazioa.
b) Adingabearen ongizateari buruzko prestakuntza egin izanaren ziurtagiria.
c) Teknikariaren argazkia.




**4.** Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

## 7. OINARRIA. DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak beharrezko datuen egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, foru dekretu honen izapidetze administratiboarako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek errolda-datuak, ikastetxearen datuak eta elbarritasunaren ingurukoak izango dira, lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten eskola adinean diren kirolarien kasuan.

Lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten teknikarien kasuan:

a) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak 2026an emandako ziurtagiri negatiboa.
b) Titulazio akademikoak.
c) Elbarritasuna.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan





(EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

## 8. OINARRIA. IZENA EMATEKO ESKAERAK ZUZENDU ETA HOBETZEA

**1.** Parte hartze izen emateak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) eguneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

**2.** Edonola ere, Kirol Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

## 9. OINARRIA. BAIMENAK

Foru dekretu honetan aurrez ikusi ez diren gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari baimen-eskabidea aurkeztea, hala egin behar dela xedatzen baitu Bizkaiko Eskola Kirola programan jasota ez dagoen edozein egoeratan baimena emateko prozedura arautzen duen foru aginduak.

Orohar, federazio lizentzia edukitzeko baimenek bertan behera utziko dute eskola kiroleko lizentzia, eta ezin izango da beraz parte hartu dagokion kirol modalitateko Bizkaiko Eskola Kiroleko Programaren baitako proba edo lehiaketetan.




Lizentzia federatua eskatzen zaien kirolari guztiek Eskola Kirolaren programan alta emanda egon beharko dute aldez aurretik.

## 10. OINARRIA. ESKOLA KIROLEKO PROIEKTUA

Eskola kiroleko proiektua entitatearen barneko kudeaketarako eta gizarteratzeko agiri bat da, eskola-umeentzako kirol jarduerei dagokienez entitatearen helburuak, egiturak eta planak jasotzen dituena.

Horregatik, entitateek bete beharko dituzte kasuan-kasuko atalak izen-ematea egiten dutenean.

Bizkaiko Foru Aldundian kirolez arduratzen den zerbitzuak publiko egin dezake identitate-printzipioei eta xede eta helburuei dagokien testu osoa.

Eskola kiroleko proiektua lantzeko informazio gehiago ondorengo webean lortu ahal da: **www.bizkaia.eus/eskolakirola**

## 11. OINARRIA. KIROL-ZUZENDARIA, KIROL-ARDURADUNA EDO ARDURADUN ADMINISTRATIBOA

**1.** Eskola-kirolean parte hartzen duten entitateek, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, jarraian aipatzen diren arduradunetakoren bat izango dute gutxienez:

a) Kirol-zuzendaria. Derrigorrezkoa izango da hurrengo ezaugarrietakoren bat betetzen duten entitateentzat:

-1. Entitateak hiru begirale edo entrenatzaile baino gehiago baditu lanaldi osoan eta kontratu mugagabearekin, edo bost begirale edo entrenatzaile enplegatuta baditu, lan-




edo administrazio-kontratua edozein dela ere, aldizkako kontratu finko eta iraupen mugatuko kontratuak dituzten langileak barne.
- -2. Entitate profesionala bada, bere kirolaren kategoria gorenean lehiatzen bada edo Bizkaialdeko kide bada.
- -3. Errendimenduko ibilbidean (R saskibaloia edo R futbola) parte hartzen badu.

b) Kirol-arduraduna. Derrigorrezkoa izango da a) letrakoen artean ez dauden entitateentzat, 5 ekipo baino gehiago edo 50 kirolari baino gehiago inskribatzen badituzte.

c) Arduradun administratiboa.  Derrigorrezkoa izango da a) letrakoen artean ez dauden entitateentzat, 5 talde gehienez edo 50 kirolari gehienez inskribatzen badituzte, edo kirolariak hastapen- edo jolas-jardueretan bakarrik inskribatzen badituzte.

**2**. Entitatearen kirol-zuzendaria, kirol-arduraduna edo administrazio-arduraduna arduratuko da parte hartzen duen entitate bakoitzeko jarduera kudeatzeaz eta behar bezala garatzeaz. Besteak beste, honako ezaugarri hauek izan ditzake:

a) Kirol-prestakuntza edota prestakuntza akademiko egokia (18. oinarrian jasotakoa).

b) Entitatearekiko lotura lan edo administrazio kontratu baten bidez.

c) Lana Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko gaitasuna.

## 12. OINARRIA. HAURREN ETA NERABEEN BABES OSOA

**1.** Eskola Kirolean inskribatutako entitateek ziurtatu behar dute haiei zerbitzu ematen dieten lan-kontratudun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztietatik, baldin eta adingabeekin harremana




izan ohi badute, inor ez dagoela epai irmoz kondenaturik sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik edo gizakien salerosketaren aurkako delituren batengatik, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua aplikatuz. Hori egiaztatzeko, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa behar da.

Era berean, artikulu horretatik eratorritako betebeharrak bete beharko dituzte. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babestekoa, eta Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 137. artikulua eta hurrengoak. Hauek izango dira, besteak beste:

- Herri-administrazioek kirol-arloan hartzen dituzten jarduera-protokoloak aplikatzea.
- Ongizate Arduradunaren figura izendatzea.
- Beharrezko formakuntza bermatzea.

Kirolariekin lan egiten duten pertsona guztiek kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa eginda izan beharko dute.

**2.** Ongizate Arduraduna arduratuko da entitatean haurrak eta nerabeak babesteko ezarritako protokoloa hedatzeaz eta betetzeaz.

Era berean, entitateko kirolariek bertara jo ahal izango dute beren kezkak adierazteko, eta, beharrezkoa izanez gero, indarkeria-egoeraren bat antzemanez gero, dagozkion komunikazioak hasteko. Gainera, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 138. artikuluan jasotako gainerako eginkizunak bete beharko ditu.

Horretarako, formazio-ikastaro hauek eginak izan beharko ditu:
a) **Haurrak kirolean zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa**.




**b) Kirol-inguruneetan adingabeak babesteko protokoloa erabiltzea.**

**3**. Eskola-kirolean haurren eta nerabeen babesaren eta ongizatearen aurkako jokabideak, jarrerak eta hutsegiteak dekretu honen **22. oinarrian** arautzen dira.

## 13. OINARRIA. ASEGURUA

Programaren barruko kirol jardueretan parte hartzen dutenek aseguru-poliza bat izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiak harpidetua, eta poliza horrek honako estaldura hau bermatuko die:

**1.** Osasun-laguntzako asegurua, baldin parte-hartzaileak ez badu beste agiri baten bidez laguntza hori jasotzeko eskubiderik.

**2.** Erantzukizun zibileko asegurua.

**3.** Kalte-ordaina emateko asegurua, parte-hartzaileak galera anatomiko edo funtzionalen bat duenerako, edo —aseguruei buruzko legeriak baimendutako kasuetan— parte-hartzailea hiltzen denerako.

## 14. OINARRIA. EUSKARAREN ERABILERA

Jarduerak garatzean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatu behar da, eta, batez ere, publizitateari eta dokumentazioari dagozkien alderdi guztietan (gutunak, kartelak, liburuxkak, egitarauak, megafonia...).

2026 | 27

ESKOLA KIROLA

# KIROLEAN HASTEA




Bizkaia

kirolur
BIZKAIA
EUROPAKO KIROL LURRALDEA
TERRITORIO EUROPEO DEL DEPORTE




Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduera proposatzen ditu eskola-umeei apurka-apurka kirolaren munduan hasteko aukera emateko, bai benjaminaurreko kategorian (HEZIKI), bai benjamin kategorian (KIROL ANITZA eta UDAL MAILAKO KIROL ANITZA); horretarako, hau eskaintzen zaie:

- Baliabideak lortzea, hala nola mugimendurako, adierazpenerako eta sormenerako, baliabideok oso baliagarriak izango baitzaizkie eguneroko bizitzarako nahiz kirolerako, dela aisialdiko edo mantentzeko kirolerako, dela lehiaketa mailako kirolerako.
- Kirol batean baino gehiagotan hasteko aukera, ume bakoitzak bere aukera eta/edo interesei ondoen egokien zaiena aukeratu dezan.
- Etorkizunean, bizitza osoan zehar, pertsona heldua denean, bizitzako aro horretako interesei eta aukerei ondoen egokitzen zaien kirol mota aukeratu ahal izatea.

Programa honetan beste ezaugarri berezi batzuk ere nabarmendu behar dira: batetik, jarduera guztietan parte-hartzeari ematen zaiola garrantzia gehien, bestelako kirol jarduereetan hain inportantea izan ohi den alderdi agonistiko edo lehiakorraren aurretik; bestetik, jarduera guztiak neska-mutilentzat direla, eta, azkenik, jarduerok naturarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen dutela.

- **HEZIKI**
- **UDAL MAILAKO KIROL ANITZA**

ESKOLA
KIROLA




AURKIBIDEA

# HEZIKI

**HEZIKI benjaminaurreko kategoriako eskola-umeentzat (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak) bereziki diseinatutako jarduera da. Jarduera honen bitartez, umeek trebetasun motorrak garatzea sustatu nahi da, haien ekintzen kudeaketa autonomoa ahalbidetzeko, eta etorkizunean egin nahi dituzten kirolak ikasteko prozesuan proposatzen zaien edozein ekintza motor egiteko gai izan daitezen, lortu beharreko gaitasun-maila edozein dela ere (parte-hartzea eta/edo errendimendua). Hori guztia, egin beharreko ekintzak gustura egitea ahalbidetzen duen giro batean, kirola eta jarduera fisikoa egiteko zaletasuna sustatzeko.**

## IZEN-EMATEA

### NORK?

**ERAKUNDEAK**

Izena emateko aukera hauek daude: Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, ikastetxe zein kirol elkarteei loturiko fundazioak, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, haien udal erakunde autonomo edo kirolen udal fundazio publikoak.

**PARTE-HARTZAILEAK**

KIROLA: HEZIKI

| PARTAIDE KOPURUA | | | KIROL MODALITATEA | | ERAKUNDE PARTAIDEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GUTX. | PROPOSATUTAKO GEHIENEKOA (DIRUZ LAGUN DAITEKEENA) | GEHI. | BANAKA | TALDEKA | IKASTETXEA | UDALA |
| 6 | | | I | | C | A |







Modalitate indibiduala denez ez dago gehieneko kopururik. Denboraldian zehar zenbat gura aldaketa egin ahal izango da taldeen osaeran.

## ENTRENATZAILEAK

Hezikiko entrenatzaileek kirol titulazio hauetako bat aurkeztu behar dute gutxienez:

| KIROL TITULAZIOA | TULAZIO AKADEMIKOA |
|---|---|
| ENTRENATZAILE NAZIONALA<br>III. MAILA | Gorputz Hezkuntzako liz.<br><br>Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako liz.<br><br>Goi-mailako kirol teknikaria: ... |
| HERRIALDEKO ENTRENATZAILEA<br>II. MAILA | HFko irakaslea<br><br>«Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioa» goi-mailako zikloa.<br><br>Kirol teknikaria: ... |
| I. MAILA | Irakasle-ikasketak<br><br>«Natura-inguruneko gorputz- eta kirol-ekintzen gidaritza» erdi-mailako zikloa |
| BEGIRALEA<br>I. MAILAKO BLOKE OROKORRA / ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEA | |
| ESKOLA KIROLEKO BEGIRALEA | |

## NOLA?

Parte hartu nahi duten entitateek 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat aurkeztuko dute eskabidea, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabiliz: **https://www.ebizkaia.eus/eu/ hasiera**






Taldeen nahiz haietako parte hartzaileen izen-ematea lau modutan egin daiteke: **www.bizkaia.eus/eskolakirola** web-orrian, Kirol Etxean (Martin Barua Pikaza kalea 27, Bilbo-48003), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak zehazten duen moduan.

Izena eman nahi duenak baliabide informatikorik ez badu, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) erabilgarri dauden ordenagailuak erabili ahal izango ditu horretarako.

Izen-ematea behar bezala egin behar da balioduntzat jotzeko (gutxieneko kirolari kopurua, kirol arduraduna, helbide elektronikoak...).

Era berean, erakundeak lehenengoz ematen badu izena Bizkaiko Eskola Kirola programan erakundearen IFKren kopia aurkeztu behar du.

Izena ematerakoan kirolari guztien argazki digitala aurkeztu behar da.

## EPEAK

Izena emateko epeak honako taula honetan ezarritakoak dira:

| IZENA EMATEKO EPEA | | |
|---|---|---|
| **KIROL JARDUERA** | **HASIERA** | **AMAIERA** |
| HEZIKI | IRAILAREN 1a | URRIAREN 23a |




## MATERIALA

Lehenengo aldiz izena ematen duten erakunde guztiei material hau emango zaie, doan:

- Bi urterako programa metodologikoa.
- 2 egokigailu eskubaloiko/areto-futboleko aterako, eta ate eramangarri bat.
- Heziki baloiak (foam).

KIROLEAN HASTEKO jarduera bat denez, hiru kontzentrazio (HEZIKIKETAK) egingo dira ikasturtean zehar (hiruhileko bakoitzean bat). Kontzentrazio horietan, kirolariei erakutsiko zaie zer den lehiaketako jardunaldi bat benjamin kategoriatik gora. Denboraldian zehar jakinaraziko da noiz eta non antolatuko den HEZIKIKETA bakoitza. Argibide gehiago: **www.bizkaia.eus/eskolakirola**






# UDAL MAILAKO KIROL ANITZA

## NORK?

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, haien udal erakunde autonomoek edo kirolaren udal fundazio publikoek UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO JARDUERA antolatu ahal izango dute, udalerriko benjamin kategoriako eskola-umeentzat, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren baimena lortu ondoren.

## NOLA?

Erakundeak, horretarako, UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO PROIEKTUA aurkeztu behar du, 2026ko irailaren 18a baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 30/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

## IZEN-EMATEA

Proiektua onartu ondoren, udalerriko hezkuntza-erakundeek, kirol-elkarteek edo udalak berak taldeen izen-ematea egin dezakete, honela: **www.bizkaia.net/eskolakirola** webean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 30/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

## IZENA EMATEKO EPEA

**2026ko ekainaren 8tik urriaren 9ra arte.**



← ESKOLA KIROLA

2026 | 27

ESKOLA KIROLA

# HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK

Bizkaia

kirolur

BIZKAIA

EUROPAKO KIROL LURRALDEA

TERRITORIO EUROPEO DEL DEPORTE



HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK

# AURKIBIDEA


- LABURPEN-KOADROA
- IZENA EMATEKO ARAU OROKORRAK
- AGILITY ETA FALKONERIA
- ARKU-TIROA
- ARRANTZA
- BELA
- BURRUKA
- EGOKITUTAKO JARDUERAK
- ESGRIMA
- EUSKAL PILOTA
- GOLFA
- HIPIKA
- HOCKEYA
- IRRISTAKETA
  - IRRISTAKETA
  - SKATEBOARD-A
  - FREESTYLE SLALOM
  - ROLLER FREESTYLE
  - GURPIL-LERROKO PATINAJE ARTISTIKOA
  - ABIADURA-PATINAJEA
  - SCOOTER-A
- MAHAI-TENISA
- MENDIA
  - MENDIA
  - MENDIKO IRTEERAK
  - FINALISTEN JAIA
  - ABENTURA ANITZEKO IRTEERA
  - IPUIN MITOLOGIKOAK
  - ERRONKA
  - TAILERRAK
  - EGONALDIAK
- NEGUKO KIROLAK
  - ESKI ALPETARRA
  - IZOTZ GAINEKO PATINAJEA
  - KORRICAN
- PADELA
- PARKOUR
- PETANKA
- PIRAGUISMOA
- SURF
  - BODYBOARD
- TAEKWONDOA
- TXIRRINDULARITZA
- URPEKO JARDUERAK
  - URPEKARITZA
- XAKEA

← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# LABURPEN-KOADROA

| FEDERAZIOA Jarduera | MOTA | IZENA EMATEKO EPEA | PREZIOA | IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK | PLAZEN ADJUDIKAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| ARKU-TIROA | | | | | |
| I.Maila<br>II.Maila | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 10 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| ARRANTZA | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| BELA | | | | | |
| BELA (udazkena) | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 55 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| BELA (udaberria) | **H** | 2027ko otsailaren 1eko 15:00etatik aurrera | 55 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| BORROKA | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| EHIZA | | | | | |
| AGILITY<br>FALKONERIA | **J** | 2026ko irailaren 1eko 15:00etatik aurrera | 5 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| ESGRIMA | | | | | |
| Esgrima | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| Esgrima ikastetxearen izenean (4-10 kirolari) | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | EZ | I.E.D.H |
| EUSKAL PILOTA | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | EZ | I.E.D.H |
| **GOLFA** | **H** | | | | |
| I.Maila (udazkena)<br>II.Maila (udazkena) | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 20 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| **HIPIKA** | | | | | |
| I.Maila | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 60 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| II.Maila | **H** | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 80 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |

**H:** Hasiera
**J:** Jolasekoa
I.E.D.H: Izena ematen den hurrenkeran





## HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK

| FEDERAZIOA Jarduera | MOTA | IZENA EMATEKO EPEA | PREZIOA | IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK | PLAZEN ADJUDIKAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| HOCKEYA | | | | | |
| I.Maila<br>II.Maila | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | EZ | I.E.D.H |
| IRRISTAKETA | | | | | |
| Irristaketa<br>Skateboard-a<br>Freestyle Slalom irristaketa<br>Roller Freestyle irristaketa<br>Gurpil-lerroko<br>Abiadura-patinajea<br>Scooter-a | H | 2026ko irailaren 7ko 15:00etatik irailaren 28ra | 20 € pertsonako | BAI | ZOZKETA |
| KIROL EGOKITUA | | | | | |
| Eskubaloia (jardunaldia), Boccia, Goalball, Golfa, Hockeya, Igeriketa, Padela, Petanka, Piraguismoa eta Surfa | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| MAHAI-TENISA | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 5 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| MENDIA | | | | | |
| Mendi-irteerak | J | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 2,50 € pertsonako (3 € nagusientzako irteeretarako) | EZ | MUGARIK EZ |
| Abentura anitzeko irteera | J | | 140 € pertsonako | | I.E.D.H |
| Ipuin mitologikoak | J | | 3 € pertsonako | | |
| Orientazio-tailerra<br>Kirol-eskaladako tailerra | H | | 10 €pertsonako | | |
| Egonaldia (Gorbeia / Izaraitz/Zugaztieta) | | | 30 € pertsonako | | |
| Mendizaletasunean hasteko egonaldia | | | 100 € pertsonako | | |
| Neguko kirolen egonaldia | | | 140 € pertsonako | | |
| Mendi-ibilien eta bibakaren egonaldia | | | 100 € pertsonako | | |

**H:** Hasiera
**J:** Jolasekoa
I.E.D.H: izena ematen den hurrenkeran

ESKOLA
KIROLA



AURKIBIDEA

## HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK

| FEDERAZIOA Jarduera | MOTA | IZENA EMATEKO EPEA | PREZIOA | IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK | PLAZEN ADJUDIKAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| NEGUKO KIROLAK | | | | | |
| Eski alpinoa (asteburuko eta Gabonetako irteerak) | J | 2026ko urriaren 7ko 15:00etatik azaroaren 4ra | 195 € pertsonako (175 € materiala edukiz gero) | BAI | ZOZKETA |
| Izotz gaineko irristaketa | | 2026ko abenduaren 17ko 15:00etatik aurrera | 24 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| Izotz gaineko irristaketa ikastetxearen izenean (30 kirolari edo gehiago) | | | | EZ | |
| Korrican (I.Maila) | H | 2026ko irailaren 16ko 15:00etatik aurrera | 8 € pertsonako | BAI | |
| Korrican (II.Maila) | | | | | |
| PADELA | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 5 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| PARKOUR | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| PETANKA | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| PIRAGUISMOA | | | | | |
| I.Maila (udazkena) | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 48 € (8 orduko ikastaroa) / 28 € (4 orduko ikastaroa) | BAI | I.E.D.H |
| II.Maila (udazkena) | | | | | |
| I.Maila (udaberria) | | 2027ko otsailaren 1eko 15:00etatik aurrera | | | |
| II.Maila (udaberria) | | | | | |
| SURFA | | | | | |
| I.Maila | H | 2027ko urtarrilaren 11ko 15:00etatik apirilaren 5era | 30 € pertsonako | BAI | I.E.D.H |
| II.Maila | | | | | |
| BODYBOARD | | | | | |
| TAEKWONDOA | H | 2027ko apirilaren 12ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| TXIRRINDULARITZA | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | BAI | I.E.D.H |
| URPEKO JARDUERAK Urpekaritza | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | DOAN | EZ | I.E.D.H |
| XAKEA | H | 2026ko irailaren 14ko 15:00etatik aurrera | 48 € ikastetxeko | EZ | I.E.D.H |

**H:** Hasiera
**J:** Jolasekoa
I.E.D.H: izena ematen den hurrenkeran






# IZENA EMATEKO ARAU OROKORRAK

## PARTE HARTZEA

Hastapen eta jolas jarduueretan parte hartu ahal izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztiak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, elkarte-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten kirol elkarte eta/edo taldeak, ikastetxe zein kirol elkarteei loturiko fundazioak eta Bizkaian bizi diren eta/edo Bizkaian eskolatuta dauden neska-mutilak.

Hastapen ikastaro bakoitza behin bakarrik egin ahal izango du kirolari bakoitzak bere eskola-etapan, egokitutako kirol-jardueretan izan ezik.

## IZEN EMATEA

### 1 ERAKUNDEAK EMATEA IZEN

Eskola Kiroleko Programako edozein jardueretan parte hartu nahi duten entitateek 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat aurkeztuko dute eskabidea, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabiliz: **https://www.ebizkaia.eus/eu/ hasiera**

Izena eman nahi duenak baliabide informatikorik ez badu eta behar baditu, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) erabilgarri dauden ordenagailuak erabili ahal izango ditu horretarako.




Izen-ematea balidatu ahal izateko, nahitaezko eremu guztiak (helbide  lektronikoak, telefonoak…) bete behar dira, eta eskatutako agiri guztiak erantsi behar dira.

Erakundeak izena eman ondoren, hastapeneko eta aisialdiko jardueretan egin nahi dituen izen-emateak egin ahal izango ditu, **www.bizkaia.eus/eskolakirola** webaren bidez, horretarako ezarrita dauden epeen arabera (ikusi laburpen-koadroa).

## 2 IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK EGITEA

Honako jarduera hauetan, izen-ematea kirolarien aitak, amak edo tutoreak egin dezake: Agility, Arku-tiroa, Arrantza, Borroka eta Sambo, Esgrima, Egokitutako jarduerak (Boccia, Eskubaloia, Goalball, Golfa, Hockeya, Igeriketa, Padela, Petanka, Piraguismoa eta Surfa), Falkoneria, Golfa, Hipika, Irristaketa (Irristaketa, Skateboarda, Freestyle Slalom irristaketa, Roller Freestyle irristaketa, Gurpil-ilaran irristaketa artistikoa, Abiadura-patinajea eta Scooter-a), Mahai-tenisa, Neguko kirolak (asteburuko eta Gabonetako irteerak eski alpetarrean, izotz gaineko irristaketan eta Korrican), Padela, Parkour, Petanka, Piraguismoa, Surfa, Taekwondoa eta Bela. Horretarako **www.bizkaia.eus/eskolakirola** webera jo behar du.

Izen-ematea ama edo aita batek egiten badu, gehienez ere hiru (3) parte-hartzaileren izena eman daiteke eta haietako bat, gainera, izen-ematea egiten duenaren seme-alaba izan behar da.

# PLAZEN ADJUDIKAZIOA

Plazak adjudikatzean, **lehentasuna izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta dauden kirolariek**.





**Eskari handia duten jarduueretan**, kasuan kasuko federazioak zozketa egingo du izena eman duten pertsona guztien artean, betiere eskaera-kopurua eskainitako plaza-kopurua baino handiagoa bada.

Izena emateko epea amaitu ondoren, **beste epe bat irekiko da plaza hutsak dituzten jardueretarako soili**k.

Gainerako jardueretan, **izen-emateen hurrenkera zehatz errespetatuta** esleituko dira plazak (**ikusi laburpen-koadroa**).

## AISIALDIKO JARDUERAK

(asteburuetako eta Gabonetako eski irteerak, izotz gaineko patinaje irteerak)

Plazak adjudikatzeko lehentasun-irizpideak:

1. Bakarkakoak edo kirolari-taldeak, inoiz parte hartu ez dutenak.
2. Gutxienez kideen % 50ek inoiz parte hartu ez duten eta beste % 50ek behin bakarrik parte hartu duten taldeak.
3. Izena ematen duten gainerako pertsonak.

# KUOTAK ITZULTZEA

Ezarritako kuotak behin ordainduz gero, haien zenbatekoa hurrengo inguruabarretariko bat gertatzen denean bakarrik itzuliko da; horretarako, aurretik eskabidea egin behar da eta frogagiriak aurkeztu.

Hauek dira inguruabarrak:

a) Gaixotasuna edo istripua; medikuaren frogagiriak aurkeztu beharko dira.

b) Ezustekoak edo bertaratzea eragozten duten premia larriak, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren Atalaren iritziz behar bezala justifikatuta daudenak.



← AURKIBIDEA

# AGILITY ETA FALKONERIA

**Programa honen helburua eguneko irteerak egitea da: Ereñoko (Bizkaia) trebakuntza-lursailera eta Gatikako agility-zelaira, 2026ko iraila (falkoneria) eta urria (agility) bitartean**

## PARTAIDETZA

- 2014-13-12-11-10-09 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute

## DATAK

- Ikastaroak egun hauetan ospatuko dira:

| 2026/10/3 | 2026/10/17 | 2026/09/20 | 2026/09/27 |
|---|---|---|---|
| AGILITY | AGILITY | FALKONERIA | FALKONERIA |

- Izen-emate datak (6 eta 25 kirolari bitartean) elkar-gunean bertan zehaztuko dira, ezarritako egunetan.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

Izen-ematea webgune honetan egin ahal izango da::
**http://www.bizkaia.eus/eskolakirola**
Erakunde baten bidez edo modu indibidualean (gurasoen izen-ema-tea).

- Izen-emate ordena, lekuak agortu arte (gutxienez 6 pertsona).
- Kuota 5€/pertsonako





## OHARRAK

Izen-emate kuotak honako hauek barne hartzen ditu:

- Animaliekiko interakzioa
- Hamarretakoa barne
- Bi eta hiru ordu bitarteko ikastaroa
- Su-armarik gabeko ehiza praktikatuko da
- Ikastaro amaieran parte-hartze diploma bat emango zaie parte-hartzaileei
- Adingabeek heldu arduradun batekin joan beharko dute
- Monitoreak
- Parte-hartzaileek honako hauek eraman beharko dituzte: Botak, euritarako jaka eta bisera

## INFORMAZIOA

Informazio gehiago nahi izanez gero,hona zuzendu:
**Bizkaiko Ehiza Federazioa**
Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfno.: 944270528
**www.fedecazabizkaia.org**
fedecaza@outlook.com







# ARKU-TIROA

Ikastaroen iraupena 10 ordukoa da. Ikastaro bakoitzean gehienez 8 eta gutxienez 6 parte hartzaile egongo dira.

## EGITARAUA I. MAILA

### SARRERA

Segurtasun-nozioak, arkuaren zatiak eta gezia, arkua muntatzea eta desmuntatzea.

### I. FASEA

- Oinarrizko posizioa eta gezia jartzea – Stance & Nock
- Hariari eta arkuari heltzea – Hookking & Gripping
- Prestaketa – Set

### II. FASEA

- Xedea – Setup

### III. FASEA

- Arkua luzatzea - Draw & Loading
- Ainguraketa – Anchor

### IV. FASEA

- Zabaltzea eta Apuntatzea - Expand & Aiming
- Askatzea eta mugimendua jarraitzea - Release & Follow-Through

### V. FASEA

- Tiroa amaitzea – End





# EGITARAUA II. MAILA

## SARRERA

I. maila gogoraraztea

## I. FASEA

- Oinarrizko posizioa eta gezia jartzea – Stance & Nock (II)
- Hariari eta arkuari heltzea – Hookking & Gripping (II)
- Prestaketa – Set (II)

## II. FASEA

- Xedea – Setup (II)

## III. FASEA

- Arkua luzatzea - Draw & Loading (II)
- Ainguraketa – Anchor (II)

## IV. FASEA

- Zabaltzea eta Apuntatzea - Expand & Aiming (II)
- Askatzea eta mugimendua jarraitzea - Release & Follow-Through (II)

## V. FASEA

- Tiroa amaitzea – End (II)

# PARTE HARTZEA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako ikasle guztiek parte har dezakete.






## DATAK

Ikastaroak 2026ko azarotik 2027ko maiatzaren bitartean egingo dira Bizkaiko herri desberdinetan.

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- 10 euro balio du parte hartzaile bakoitzeko, material guztia barne.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900








# ARRANTZA

## PROGRAMA

- Arrantza-ingurunea eta agertokia.
- Ingurumena errespetatzea.
- Arrain-fauna.
- Arrantzarako lizentziak eta baimenak.
- Taldeak ezagutzea.
- Arrantza-materialak.
- Itsasoko eta ibaiko arrantza modalitateak.
- Arrantza praktikoa.
- ARRAINAK HARRAPATZEA ETA ASKATZEA

## PARTE-HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

- Ikastaroak 2026eko urriaren 3an eta 10ean (ibaia-arrantza) eta 2027ko martxoaren 6an, 13an eta 20an (itsas arrantza) egingo dira eta Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko teknikariek emango dituzte.
- Ikastaroen iraupena 3 ordukoa da, ordu eta erdiko bi txandatan eta Bilboko itsasadarrean (itsas arrantza) eta Ugao-Miraballesen (ibai-arrantza) egingo dira.




## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak dohainik izango dira.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:

**Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoak: 94 427 65 37 / 747 42 76 77
**web@fbpesca.eus**





# BELA

Ikastaroaren iraupena 5 egunekoa izango da, guztira, 15 ordukoa.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasle guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak emango direneko egunak hauek izango dira:
2026ko irailetik 2027ko irailera.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Izena ematearen kuota pertsona bakoitzeko 55 eurokoa izango da.

## OHARRAK

- Belaontziak taldekakoak, bikoitzak edo banakakoak izango dira eta untzi laguntzaileak ere egongo dira.
- Taldeak 8 lagunekoak izango dira.
- Jardueren ordutegia ikastetxeetan zehaztuko da.
- Bela Eskolak duen aseguruak 2.404.000 euroko erantzukizun zibila estaltzen du.








## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:

**Eskola Kiroleko bulego nagusia**

K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27

Tfnoa: 944410900

ESKOLA
KIROLA




AURKIBIDEA

# BURRUKA

Ikastaroak, Bizkaiko Borroka Federazioko begiraleek emango dituzte zenbait polikiroldegitan zein eskoletan.

Ikastaroen iraupena 3 ordutakoa izango da, larunbatetan edo igandeetan goizez edo arratsaldez.

## EGITARAUA

- Borrokatzeko toki eta materiala egokia ezagutzea.
- Jolas eta ariketen bidez gorputz-beroketa egitea.
- Borrokatzeko gorputz-jarrera ezberdinak ikastea.
- Zutik borrokatzeko oinarrizko eraso- eta defensa-teknikak ikastea.
- Lurrean borrokatzeko oinarrizko eraso eta defensa-teknikak ikastea.
- Ikasleen artean borrokalditxoak egitea.

## PARTAIDETZA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak emango direneko egunak hauek izango dira:
2026ko urritik 2027ko maiatzera.



## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak dohainik izango dira.

## OHARRAK

- Ekintzarako praka motza, kamiseta eta zapatilak motxilan ekarri.
- Norbere higienerako dutxa hartzeko beharrezko gauzak ekarri.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:
**Bizkaiko Borroka Federazioa**
Roberto Hojas Euba
Tfno: 655446238
**roberlucha@hotmail.com**







# EGOKITUTAKO JARDUERAK

Jarduerak 2 edo 4 ordukoak dira, astean egun batean edo bitan, urritik ekainera.

## HELBURU OROKORRAK

- Kirol modalitate ezberdinak ezagutzera emate.
- Jolasteko eta kirola egiteko bizikidetza-gune bat eskaintzea, balio positiboetan oinarrituta.
- Desgaitasun bat duten umeei aisialdirako aukera bat eskaintzea.
- Desgaitasun bat duten ume eta gazteen artean kirola sustatzea.
- Lehiaketa-kirolaren modalitateak ezagutzen hastea, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako berezitasunak kontuan hartuta.
- Lehiaketan hasteko laguntza ematea, eskolan dauden gainerako umeek dituzten aukerak izan ditzaten. Horretarako, egokitu egiten dira kirolak eta kirol egokituaren federazioek antolatutako lehiaketetara laguntzen zaie.
- Jarduera fisikoa egiteko ohitura sortzea, osasuna hobetzen laguntzen baitu eta desgaitasuna duten umeen lan psikomotorra garatzeko lagungarria baita.
- Ikasle hauen eskolaz kanpoko jarduerak osatzeko eta laguntzeko eskaintza sortzea.
- Autonomiaren sustapena ikuskatzea, norberaren higiene eta garbitasunerako ohiturak sortuta.

## ESKAINITAKO JARDUERAK

- Eskubaloia (jardunaldia)
- Goalball
- Hockeya
- Padela
- Piraguismoa
- Boccia
- Golfa
- Igeriketa
- Petanka
- Surfa






## PARTE-HARTZEA

2006 / 2007 / 2008 / 2009 / 2010 / 2011 / 2012 / 2013 / 2014 / 2015 / 2016 / 2017 / 2018 / 2019 urteetan jaiotako eskola-umeek parte hartu ahal dute.

## DATAK

- Boccia eta Goalball Ikastaroak Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioaren bitartez emango dira, Bizkaiko kirol egokituaren kluben laguntzarekin.
- Gainerako jarduerak beren federazioen bidez kudeatuko dira.

## INSKRIPZIOA ETA KUOTA

- Boccia eta Goalball jardueren inskripzioa Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioaren bidez egingo da, eta gainerako jarduerak dagokion federazioaren bidez.
- Hainbat kuota daude egin nahi den ikastaroaren arabera. Kontsultatu federazioan.

## INFORMAZIOA

Boccia eta goalball-ari buruzko informazioa nahi izanez gero, hona jo:
**Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioa**
Martin Barua Picaza kalea 27 . Tel.: 94 441 31 81
**https://bkef.eus/**

Gainerako jarduearetarako, dagokion federaziora jo:

**Bizkaiko Eskubaloi Federazioa**
Tel: 944419148
**Bizkaiko Golf Federazioa**
Tel.: 94 439 41 21
**Bizkaiko Hockey Federazioa**
Tel: 688619831
**Bizkaiko Igeriketa Federazioa**
Tel: 944411893

**Bizkaiko Padel Federazioa**
Tel.: 634 488 365
**Bizkaiko Petanka Federazioa**
Tel: 747416082
**Bizkaiko Piraguismo Federazioa**
Tel.: 685 739 632
**Bizkaiko Surf Federazioa**
Tel.: 658755472




# ESGRIMA

Hasierako ikastaroek 8 orduko iraupena izango dute, eta eskola-kirolarien talde txikietan egingo dira.

## EGITARAUA

- Kirol-esgrimaren ekipamendua ezagutzea.
- Aurkariarekiko errespetuzko agurra eta esgriman erne  jartzea.
- Eskuko oinarrizko teknika eta guardia jarrerak.
- Joan-etorriak, itzuriak, estimulazio motorra ikasteko jolasak.
- Eraso egiteko eta defentsarako ekintzen oinarrizko ezagutz.
- Erasoaldi gidatuak (taktika eta estrategia).

## PARTAIDETZA

2013, 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018an urteetan jaiotako eskola-umeek parte hartu ahal dute.

## DATAK

- Ikastaroak 2026ko urritik 2027ko maiatzera bitartean egingo dira.
- Ikastetxearen inskripzioaren kasuan, entitatearen eta Bizkaiko Esgrima Federazioaren artean zehaztuko da ordutegia.






## IZEN EMATEA ETA KUOTA

### INSKRIPZIO INDIBIDUALA EDO IKASTETXEAREN "IZENEAN (3 kirolari gehienez)

- Inskripzioa web orrian egin ahal izango da:
  **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola**
  erakunde baten bitartez (3 KIROLARI GEHIENEZ) edo modu indibidualean (aitak edo amak).
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak doan izango dira.

### INSKRIPZIOA IKASTETXEAREN IZENEAN (4-10 kirolari)

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez.
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak doan izango dira.

## OHARRAK

- Bizkaiko Federazioak jarriko du ekipamendua (kareta, armak, jaka/babesa) eta esgrima modernoan ukituak erregistratzeko erabiltzen den seinaleztapen-gailua.
- Parte-hartzaileek txandala eta kirol-oinetakoak jantzita eraman beharko dituzte.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944 410 900



AURKIBIDEA

# EUSKAL PILOTA

Hastapen ikastaroak 5 orduko iraupena izango du 26 neska-mutil baino gutxiagoko talde bakoitzeko.

## EGITARAUA

Ikastaroaren egitaraua honakoa da:

- Euskal Pilotaren inguruko materiala ezagutzea eta historiaren berri izatea.
- Esku Pilotaren teknikaren oinarrizko ikasketa.
- Palaren teknikaren oinarrizko ikasketa.
- Zesta Puntaren teknikaren oinarrizko ikasketa.
- Teknika ikasteko jokoak.
- Tailerrak.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

- Ikastaroak Bizkaiko Euskal Pilota Federakundeko monitoreek (Teknikariek) emango dituzte iraileti ekainera arte.
- Egunak eta ordutegiak ikastetxeetan eta Federakundean zehaztuko dira.

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke.



- Inskripzioa erakunde baten bitartez baino ezin da egin.
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak dohainik izango dira.

## OHARRAK

- Eskatzen duten zentro guztiei, beti ere, euskal pilotako eskola kiroleko edozein txapelketan izena emanda izatekotan, behar den materiala emango zaie.
- Ikastetxeak ikastaroa burutzeko frontoia izan behar du. Hala ez bada, eginbeharreko guztia abian jarri beharko du instalazioa eskuratzeko.
- Hastapeneko jardunaldi hauen helburua ikasleen artean Euskal Pilota ezagutzera ematea da.
- Hauek dira ikastaro hauek emateko baldintzak: zentroak euskal pilotako eskola kiroleko edozein txapelketan izena emanda izatea edo behintzat, interesa izatea hurrengo denboraldian Euskal Pilotako edozein modalitateko eskola-lehiaketan parte hartzeko. Horretarako, neska-mutil talde bat  egingo da eskolaz kanpoko orduetan teknikari batekin jarduteko.
- Jardunaldi hauetan izena ematen duten zentroek, Federakuntza eta zentroen artean adostutako ordutegietan partehartzen ez badute, hurrengo urtean ez dute berriro partehartzeko aukerarik izango.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo bulego orduetan:

**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900

**Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntza**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tlfno: 944.105.560




# GOLFA

Ikastaroak, Bizkaiko Golf Federazioko begiraleek emango dituzte Bizkaiko golf-klub ezberdinetan.

I.Mailako ikastaroen iraupena 12 ordutakoa izango da, 6 saiotan banatuta, bi ordu egun bakoitzean eta II. Mailakoa 10 ordutakoa izango da, 5 saiotan banatuta, bi ordu egun bakoitzean.

## EGITARAUA I. MAILA

- Golfari buruzko oinarrizko kontzeptuak: jokoa, oinarrizko arauak, heldukera, jaurtiketa.
- Joko luzea: kokatzeko ordena, makilaren gorpu eta aurpegiaren kokaera, BackSwing, kolpea, DownSwing (oreka), makila ezberdinen erabilera.
- Joko laburra: kokatzeko ordena, makilaren gorpu eta aurpegiaren kokaera "putter"ean, mugimenduaren kontrola, hurbiltze-teknikak eta bunker-teknikak.
- Ibilbideko bat ikusi, zelaiko alde ezberdinak azalduz.

## EGITARAUA II. MAILA

### 1. SAIOA

A. Puttingren, kokatzea, pendulu-mugimendua kontrolatzea noranzkorako eta distantziarako, zulotik 2 oin, 3 oin eta 4 oin eta 10 metroko erradioko zirkuluen ariketak eginez.

B. Chip, hibridoarekin errodatuak, green inguruan eta gero pitching-arekin.

C. Pitch and putt-ean jokoan aritzea, eta etiketa- eta joko-arauak errepasatzea.




## 2. SAIOA

A. Praktika-jokalekua: grip eta kokatzea errepasatzea.
B. Bunker kolpeak praktikatzea green inguruan eta etiketa-arauak eta bunker jokoa.
C. Pitch and putt eta banakako stablefor jokoetan aritzea (modalitatea azalduta).

## 3. SAIOA

A. Praktika-jokalekua: backswing erritmoarekin eta amaieran oreka errepasatzea.
B. Chip-a praktikatzea green-etik 15 metrora.
C. Pitch and putt-era irtetea eta banaka jokatzen da.

## 4. SAIOA

A. Praktika-jokalekua: 40, 60 eta 80 metrora hartutako green-ariketak egitea.
B. Kaleko bunker-a (luzea).
C p&p-ra irtetea eta jokalari bakoitzaren ebaluazioa egitea.

## 5. SAIOA

A. 15 minutuz berotzea praktika-jokalekuan.
B. chip 15 minutuz.
C. Ikasitakoa errepasatzea.

# PARTAIDETZA

2013/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek har dezakete parte.





## DATAK

Ikastaroak asteburuetan izango dira, ikasturtean zehar.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- I. eta II. Mailako kurtsoetan izena ematearen kuota pertsona bakoitzeko 20 eurokoa izango da. Ordainketa Bizkaiko Golf Federazioan edo bankuaren bitartez egin beharko da.

## OHARRAK

- Eguraldia edo ezinbesteko kasuren bat dela medio bisitak beste egun baterako utzi ahal izango dira.
- Ikastaroren bat bertan behera utzi behar bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuli egingo da.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900

ESKOLA KIROLA

AURKIBIDEA




# HIPIKA

Talde bakoitzeko 10 orduko iraupena izango dute eta orduak Ikastegiak eta ikastaroa emango duen Erakundeak zehaztuko dituzte.

## PROGRAMA

### I. MAILAKO PROGRAMA

- Zaldiari buruzko ezagutza morfologikoa.
- Zaldiaren garbiketa eta mantenua.
- Zaldiaren gaineko oreka.
- Zaldian ibiltzea: pausuka, trostan eta lauazkaren hastapena.

### II. MAILAKO PROGRAMA

- Mailako Hastapen Ikastaroa egin duten eta hipikari buruzko ezagutzak pixka bat gehiago sakondu nahi dituzten ikasleei zuzenduta, edo beren bizitzako uneren batean hipikarekin harremana izan duten eta pausoz pauso eta trostan joateko oinarrizko ezagutzak dituzten ikasleei zuzenduta.
- 10 orduko hobekuntza pasabidean, trostan eta, ikasle bakoitzaren mailaren arabera, arrapaladan hasteko aukera.
- Zaldiberriren prestakuntza laburra – zaldizko jokoen diziplina bat, jolas posibleen lagin batekin.

## PARTAIDETZA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.






## DATAK

Ikastaroak urritik ekainera bitartean izango dira, eta Bizkaiko Hipika Federazioaren bitartez emango dira.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke,
  erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Izenematearen kuota pertsona bakoitzeko 60 eurokoa izango da I. mailan eta 80 eurokoa II. mailan eta Federazioan ordaindu behar izango da izenematea egiterakoan.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero:
**www.fbizkainahipika.eus**







# HOCKEYA

Ikastaroetan 4 edo 5 saio egingo dira.

## EGITARAUA I. MAILA

Programaren barruan hauek sartzen dira:

- Materiala ezagutzea.
- Berotzeko ariketa orokorrak.
- Teknika indibiduala: pase egiteko, jasotzeko, iskin egiteko eta jaurtitzeko mugimendu teknikoak.
- Mugimendu taktikoak, banaka eta taldean.
- Partidaren taktika.
- Taldeko lana indartzeko jolasak.
- Entrenamendu espezifikoak.
- Lagunarteko partidak.

## EGITARAUA II. MAILA

Programaren barruan hauek sartzen dira:

- Materiala ezagutzea.
- Stick-a ondo erabiltzea (heldulekuak).
- Belar gaineko eta aretoko hockeyaren oinarrizko arauak eta portaera-arauak ezagutzea.
- Berotzeko ariketa orokorrak.
- Teknika indibiduala: pase egiteko, jasotzeko, iskin egiteko eta jaurtitzeko mugimendu teknikoak.
- Eraso egiteko eta defentsarako teknikak: 1vs1, 2vs1, 2vs2.
- Mugimendu taktikoak, banaka eta taldean.
- Partidaren taktika.
- Oinarrizko mugimenduak ezagutzea: desmarkatzea, laguntza...
- Taldeko lana indartzeko jolasak.







- Entrenamendu espezifikoak.
- Pilota estatikoan eta mugimenduan kontrolatzea (pilota gidatzea, driblinak, paseak, hartzeak...).
- Lagunarteko partidak.
- Partida batean alderdi teknikoak eta taktikoak uztartzeko gai izatea.
- Talde-kirolaren baloreak transmititzea.

## PARTAIDETZA

2010/11/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak 2026ko azarotik 2027ko ekainera egingo dira.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke.
- Inskripzioa erakunde baten bitartez baino ezin da egin
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak dohainik izango dira.

## OHARRAK

Ikastaroak leku hauetan emango dira:
- Ikastetxeak.
- Fadurako kiroldegiko (Getxo) hockey-zelaia.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:

**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944 410 900

**Bizkaiko Hockey Federazioa**
K/Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfno.: 688 619 831

AURKIBIDEA



# IRRISTAKETA

## HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK




AURKIBIDEA

# IRRISTAKETA

**Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte, Bizkaiko ikastetxeetan edo kirol instalazioetan.**

**Ikastaroak 10 ordukoak izango dira, sortzen diren taldeek dituzten beharren eta/edo iradokizunen arabera:**

- **4 asteburu; 2 ordu eta erdi egunean.**

## PROGRAMA

- Oreka menperatzea.
- Aurreranzko desplazamenduaren oinarrizko hastapenak ikastea.
- Biraketak eta norabide-aldaketak.
- Galgatzeari buruzko oinarrizko hastapenak ikastea.
- Atzeranzko desplazamenduaren oinarrizko hastapenak ikastea.
- Irristaketa motak eta bakoitzean erabiltzen den materiala ezagutzea:
- Irristailuen gaineko hockey-a.
- Gurpil-lerroko irristailuen gaineko hockey-a.
- Patinaje artistikoa.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.






## IZEN-EMATEA / KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (irristailuak) eta kaskoa eta babesak erabiltzea: belaunetakoak, ukondo-babesak...
- kastaroak atzeratu edo beste instalazio batzuetara aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratuko balitz, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela berresteko, 10 pertsonako taldeak osatu behar dira, baina 15ekoak, gehienez ere, ikastaroak ondo egin ahal izateko.

## INFORMAZIOA

**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**








# SKATEBOARD-A

**Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte.**

**10 orduko ikastaroak izango dira eta asteburuetan emango dira: ordu bi eta erdi jardunaldi bakoitzeko.**

## EGITARAUA

- Skateboard motak eta bakoitzean erabiltzen den materiala ezagutzea.
- Bulkatzeko eta irristatzeko oinarrizko teknikak lauan ikastea.
- Galgatzeari buruzko oinarrizko hastapenak ikastea.
- Oinarrizko maniobrak lauan ikastea.
- Oreka menperatzea.
- Carving"a eta "ollie"a ikastea.

## PARTAIDETZA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.





## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (skateboard-a) eta kaskoa eta babesak erabiltzea.

- Ikastaroak atzeratu edo Bilbora aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratuko balitz, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela berresteko, 7 pertsonako taldeak osatu behar dira.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**

← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# FREESTYLE SLALOM
## IRRISTAKETA

Rubén Martínez de Rituerto Domínguez monitore tituludunak emango ditu ikastaroak.

## PROGRAMA

- Motak eta materiala ezagutzea.
- Bultzaden bidez irristatzeko teknika hobetzea.
- «A»n eta paraleloan biratzen ikastea eta biratze horiek hobetzea.
- Takoarekin eta «T»n frenatzen ikastea eta frenatzeko modu horiek hobetzea.
- Irristailu bakarra erabilita oreka-ariketak egiten ikastea.
- Atzerantz irristatzen ikastea.
- Slalomeko mugimenduak ikastea: Fish, Push, Rush, Harra, Tip-tap, Nelson Harra eta Nelson gurutzatua.

## PARTE-HARTZEA

Urte hauetan jaiotako eskolaumeek hartu ahal izango dute parte: 2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.






## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (irristailuak) eta kaskoa eta babesak erabiltzea: (eskumuturrekoak, belaunetakoak eta ukondo-babesak).
- Ikastaroren bat bertan behera geratzen bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Euria edo eguraldi txarra egiten badu, jarduera leku estali batean egin beharko da.
- Jarduera egingo dela ziurtatzeko, 7 pertsonako taldeak osatu behar dira.

## INFORMAZIOA

Informazio gehiagorako:
**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo
Tel.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**

← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# ROLLER FREESTYLE
## IRRISTAKETA

**Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte.**

**10 orduko ikastaroak izango dira eta bi asteburutan emango dira: ordu bi eta erdi egun bakoitzean.**

## PROGRAMA

- Motak eta materiala ezagutzea.
- Hasierako bultzadaren teknika eta lauan irristatzeko teknika ikastea.
- Frenatzeko oinarrizko ezagupenak ikastea.
- Lauan oinarrizko maniobrak nola egin ikastea.
- Oreka menperatzea.
- «Carving»a ikastea.
- «Fakie» eran edo atzerantz irristatzen hastea.
- Oinarrizko «grind» mugimenduak ikastea.

## PARTE-HARTZEA

Urte hauetan jaiotako eskolaumeek hartu ahal izango dute parte: 2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.




AURKIBIDEA

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).

- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (irristailu gogorrak) eta kaskoa eta babesak erabiltzea.
- Ikastaroak atzeratu edo Artxandako skatepark estalietara aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratzen bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela ziurtatzeko, 7 pertsonako taldeak osatu behar dira.

## INFORMAZIOA

Informazio gehiagorako:
**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo
Tel.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**

AURKIBIDEA




# GURPIL-LERROKO PATINAJE ARTISTIKOA

**Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte, Bizkaiko ikastetxeetan edo kirol instalazioetan.**

**Ikastaroak 10 ordukoak izango dira, sortzen diren taldeek dituzten beharren eta/edo iradokizunen arabera: 4 asteburu; 2 ordu eta erdi egunean.**

## PROGRAMA

- Disziplina desberdinen ezagutzera eta erabiltzen den materiala.
- Beroketa eta oreka ikasteko ariketak, irristailu barik.
- Irristailuak jantzi ikastera.
- Irristaketan berariazko jarrerak eta besoen koordinaketa.
- Irudi artistikoak ikastea.
- Oinarrizko teknika labaintzeko irristailuen gainean.
- Artistikoan gelditzeko erak (T eta kuña).
- Ikasitako irudi artistikoarekin, koreografia gauzatzea.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.




## IZEN-EMATEA / KUOTA

Inskripzioa: **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).

Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.

Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (irristailuak) eta kaskoa eta babesak erabiltzea: belaunetakoak, ukondo-babesak...
- Ikastaroak atzeratu edo beste instalazio batzuetara aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratuko balitz, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela berresteko, 10 pertsonako taldeak osatu behar dira, baina 15ekoak, gehienez ere, ikastaroak ondo egin ahal izateko.

## INFORMAZIOA

**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**





# ABIADURA-PATINAJEA

Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte.

Ikastaroak 10 ordukoak izango dira, sortzen diren taldeek dituzten beharren eta/edo iradokizunen arabera: 4 asteburu (larunbata eta igandea); 2 ordu eta erdi egunean.

## PROGRAMA

- Materiala ezagutzea.
- Oinarrizko posizioa ZUZENEAN eta KURBAN
- Teknika ZUZENEAN (pauso klasikoa)
- Teknika KURBAN
- Erradio txikiko KURBAK
- Erradio ertaineko KURBAK
- Erradio handiko KURBAK
- Trebetasuna eta jauziak
- Abiadura kontrolatzea
- FRENATZEKO erak
- Taldeko lana
- Lasterketak
- JOLASA: ikasteko tresna.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.




## IZEN-EMATEA / KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (irristailuak) eta kaskoa eta babesak erabiltzea: belaunetakoak, ukondo-babesak...
- Ikastaroak atzeratu edo beste instalazio batzuetara aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratuko balitz, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela berresteko, 10 pertsonako taldeak osatu behar dira, baina 15ekoak, gehienez ere, ikastaroak ondo egin ahal izateko.

## INFORMAZIOA

**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa.: 946024179 / 667540025
**federacion@irristaketa.org**



← AURKIBIDEA



# SCOOTER-A

Ikastaroak Bizkaiko Irristaketa Federazioko monitoreek emango dituzte.

10 orduko ikastaroak izango dira eta asteburuetan emango dira: ordu bi eta erdi jardunaldi bakoitzeko.

## EGITARAUA

- Modalitateak eta bakoitzean erabiltzen den materiala ezagutzea.
- Bulkatzeko eta irristatzeko oinarrizko teknikak lauan ikastea.
- Galgatzeari buruzko oinarrizko hastapenak ikastea.
- Oinarrizko maniobrak lauan ikastea.
- Oreka menperatzea.

## PARTAIDETZA

2011/12/13/14/15/16/17/18/19/20 urteetan jaiotako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

## DATAK

Datak zehaztu ondoren, Federazioan kontsultatu ahal izango dira.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).





- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izen-ematearen kuota 20 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, eta Bizkaiko Irristaketa Federazioan bertan edo bankuaren bitartez ordain daiteke.

## OHARRAK

Ikastaroetan parte hartzeko nahitaezkoa da materiala izatea (skooter-a) eta kaskoa eta babesak erabiltzea.

- Ikastaroak atzeratu edo Bilbora aldatu ahalko dira, eguraldiak eraginda edo beste arrazoi batzuk direla eta.
- Ikastaroren bat bertan behera geratuko balitz, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Jarduera egingo dela berresteko, 7 pertsonako taldeak osatu behar dira.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Bizkaiko Irristaketa Federazioa**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
**federacion@irristaketa.org**





# MAHAI-TENISA

## PROGRAMA

- Mahai-tenisa: sarrera (20').
- Jokoaren (mahaian) oinarrizko kontzeptuak (40').
- Ariketak eta jokaldiak mahaian (45'-1h).
- Lehiaketa, partidak eta/edo jokoak, mailaren arabera (45'-1h).

## PARTE-HARTZEA

- 2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.
- Monitoreak.

## DATAK

Ikastaroak 2026ko abendutik 2027ko apirilera bitartean egingo dira. Ikastaroa goiz edo arratsalde bateko saio bat izango da, 2h30’- 3h ordukoa.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Eskola-ume eta/edo teknikari bakoitzak 5 euroko kuota ordaindu beharko du.





## OHARRAK

Ikastaroa egiteko, gutxienez 15 ikasle egon behar dira, eta, gehienez, 40. Zentro bereko 15 pertsonako edo hortik gorako taldeen kasuan, ikastaroa zentroan eman daiteke.

## INFORMAZIOA

Informazio gehiagorako:
**Bizkaiko Mahai-teniseko Federazioa**
C/Martín Barua Picaza Kalea, 27 – Dpto 607
48003 Bilbo
94 407 92 72
**www.fvtm.org**
**tenisdemesa@fvtm.org**

← AURKIBIDEA

# MENDIA

## HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK



← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# MENDIA

## JARDUERAK

### AISIALDIKO JARDUERAK

Mendiari lotutako jarduerak sustatzea eta parte-hartzaileak haietara gerturatzea dute xede. Horretarako, bi maila horietan mendi ibilien modalitatea ezartzea proposatzen dugu orain arte egiten genituen mendi igoerekin batera. Horrez gain, abentura anitzeko jarduera bat proposatzen dugu helduentzat; bertan, parte-hartzaileek arroila jaitsierak, via ferrata eta eskalada egiteko eta haiekin gozatzeko aukera izango dute.

### HASTAPENEKO JARDUERAK

Interesdunak aurrerago zehaztuko ditugun jardueretan trebatu eta hastea dute xede. Parte-hartzaileen gaitasuna kontuan hartuta, eskaintzak kategorien arabera egokituta daude. Parte-hartzaileek beraien prestakuntzan aurrera egin dezaten nahi dugu; arrazoi hori dela eta, zenbait maila proposatzen ditugu eskalada nahiz orientazioko tailerretan. Egonaldiak proposatzen ditugu atal honetan ere, aterpeek sorrarazten dituzten mendizale-sentimenduak sendotzeko asmoz. Gainera, egonaldi horien bidez, parte-hartzailea Bizkaiko Mendi Federazioaren eskumeneko modalitateetara gerturatu eta haietan trebatuko dira.

## KATEGORIAK

Mendiko eskola kirolako kategoriak 2026/2027 ikasturterako:

**UMEAK**

Benjaminak: 2017/2018
Kimuak: 2015/2016
Umeak: 2014*

**NAGUSIAK**

Umeak: 2013/2014*
Kadeteak: 2011/2012
Gazteak: 2009/2010

*2014. urtean jaiotakoek bi kategorietako edozeinetan parte hartzeko aukera izango dute.




← AURKIBIDEA

# MENDIKO IRTEERAK

Mendi-irteerak gure lurraldeko zenbait menditara egingo diren egun bateko txangoak dira. Jarduera hau kategoriatan eta parte-hartzeko eskualdetan dago banatuta:

## PARTE-HARTZEKO ESKUALDE EDO ALDEAK

- 1. eremua: Bilbo eta Enkarterriak.
- 2. eremua: Meatzaldea eta itsasadarraren ezkerraldea.
- 3. eremua: Uribe Kosta.
- 4. eremua: Urdaibai, Durangaldea eta Lea Artibai.
- 5. eremua: Ibaizabal, Urduña eta Arratia.

## MATERIALA

Parte-hartzaile bakoitzak honako material hau eraman behar du:

- Motxila bana, bakoitzak irteera daraman materiala garraiatzeko modukoa.
- Mendiko edo trekking motako botak (ez da gomendatzen kiroleko zapatilak eramatea, ez dute orkatila ondo eusten eta).
- Txanoa eta eguzkitako betaurrekoak.
- Eguzkitako krema eta ezpain-babesa.
- Bero mantentzeko arropak eta zira.
- Polainak (euria/elurra bada).
- Kantinplora ("errefreskoen" litro bateko plastikozko botila bat nahikoa da).
- Hamaiketakoa.

Autobuserako nahitaezko materiala:

- Aldatzeko arropa eta oinetakoak, bigarren poltsa batean.






# UMEENTZAKO IRTEEREN EGUTEGIA

Gutxi gorabehera 3,5 orduko eta 300m eta 400m arteko desnibel positiboa duen ibilbideko txangoa izango da.

Hauxe da irteeren egutegia:

| EGUNA | ALDEAK | IRTEERA |
|---|---|---|
| 2026/09/27 | 1,3 eta 5 | PUNTA LUZUERO (309M) – ZIERBENA |
| 2026/10/04 | 2 eta 4 | |
| 2026/10/18 | 1 | OTXANDIOKO BIDEZIDORRA – OTXANDIO |
| 2026/10/25 | 2 | |
| 2026/11/01 | 3-5 | |
| 2026/11/08 | 4 | |
| 2026/11/15 | 1 | ESKORIETA (642M)- ARESPALDITZA |
| 2026/11/22 | 2 | |
| 2026/11/29 | 3-5 | |
| 2026/12/20 | 4 | |
| 2027/01/17 | 1 | MENDIOLAKO BIDEZIDORRA - ABADIÑO |
| 2027/01/24 | 2 | |
| 2027/01/31 | 3-5 | |
| 2027/02/21 | 4 | |
| 2027/02/28 | 1 | KALAMENDI (315M) - BERRIATUA |
| 2027/03/07 | 2 | |
| 2027/03/14 | 3-5 | |
| 2027/04/11 | 4 | |
| 2027/04/18 | 1 | GRAZALEKO BIDEZIDORRA – SODUPE |
| 2027/04/25 | 2 | |
| 2027/05/02 | 3-5 | |
| 2027/05/09 | 4 | |



## IZENA EMATEKO KUOTA

Umetxoak, kimuak eta haurrak kategorietarako kuota: 2,50€ parte-hartzaile (arduraduna barne) eta irteera bakoitzeko.

## IZENA EMATEKO EGUNA

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (24:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.

## NAGUSIENTZAKO IRTEEREN EGUTEGIA

Gutxi gorabehera 5 orduko eta 400m eta 700m arteko desnibel positiboa duen ibilbideko txangoa izango da. Hauxe da irteeren egutegia:

| EGUNA | ALDEAK | IRTEERA |
|---|---|---|
| 2026/10/04 | guztiak | PUNTA LUZUERO (309M) – ZIERBENA |
| 2026/10/18 | guztiak | GARAIO (574M) - ZALLA |
| 2026/11/22 | guztiak | GALDAMESKO BIDEZIDORRA - GALDAMES |
| 2026/12/20 | guztiak | AITXIKI (785M) - ATXARTE |
| 2027/01/24 | guztiak | ERMUAKO BIDEZIDORRA - ARMINTZA |
| 2027/03/07 | guztiak | ILUNTZAR (726M)-AULESTI |
| 2027/04/11 | guztiak | ETAPA 3 (BMF BIDEZIDORRA) |






## IZENA EMATEKO KUOTA

Haurrak, kadeteak eta gazteak (nagusiak) kategorientzako kuota: 3,00€ parte-hartzaile (arduraduna barne) eta irteera bakoitzeko

## IZENA EMATEKO EGUNA

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (24:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.






# FINALISTEN JAIA

Halaber, finalisten jaia kategoria guztietako parte-hartzaileekin egingo den jaialdia da, eta honako jarduera hauek izango ditugu denon gozamenerako:

- Mendiko ibilbideak.
- Rokodromoa, "slackline"a eta tirolina.
- Orientazioko tailerra.
- Sari-banaketa eta diplomak.

Finalisten jaiaren eguna:

| EGUNA | ALDEA | IRTEERA |
|---|---|---|
| 2027/05/23 | guztiak | FINALISTEN JAIA |

## IZENA EMATEKO KUOTA

Guztientzako kuota: 3€

## IZENA EMATEKO EGUNA

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (24:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.

**OHAR GARRANTZITSUA**: Ez da itzuliko jolas-jardueretan parte hartzeko ordaindu den dirua. Ekintza horiek zuzendaritzaren erabakiz bertan behera geratzen direnean baino ez da itzuliko dirua.

← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# HELDUENTZAKO ABENTURA

## ANITZEKO IRTEERA

Jarduera hau denboraldi amaieran egingo da, 5 egunez, Guarako mendilerroan.

Honako jarduera hauek egingo dira irteera honetan:

- Arroila jaitsiera
- Via ferratak
- Eskalada

### NORENTZAT

helduentzat, igandetan mendira etortzen diren parte-hartzaileek izango dute lehentasuna.

### IRAUPENA

5 eguneko irteera da, joan-etorria barne.

### TOKIA

Jarduera Guarako Mendilerro eta Arroilen Natur Parkean, Huescan, egingo da.

### PARTE-HARTZAILEAK

16ko taldea izango da gehienez, eta 8ko taldea, gutxienez.

### DATAK

jarduera uztaileko lehenengo astean egingo da.

### TAILERRAREN PREZIOA

140 eurokoa da.






# ERRONKA

Proposatu dugun erronkaren bidez, parte-hartzaileek aukera daukate irteera horiek beren kabuz egiteko. Horretarako, gu gabe mendira joateko behar den informazioa guztia deskargatu ahal dute; fitxa teknikoa eta GPSrako ibilbidea prestatuta utzi ditugu. GPSari buruzko ezagutzarik ez badute, ikastaro bat eskainiko diegu, jardueren atalean adierazten den bezala.

Proposatutako mendien informazioa esteka honetan dago:
**https://bmf-fvm.org/deporte-escolar/reto/**





# IPUIN MITOLOGIKOAK

**Jarduera honen asmoa parte-hartzaileak mendira eramatea da, eta ipuin mitologiko musikatuen bidez zaindu eta kontserbatu duten pertsonen lana erakustea eta goraipatzea.**

## NORENTZAT DA

Kategoria guztientzat.

## IRAUPENA

Irteerak 5 orduko iraupena du, gutxi gorabehera.

## ZAILTASUNA

Haurren kategoriako ibilbidea da.

## PARTE-HARTZAILEAK

gehienez ere 56 parte-hartzaile taldean.
8ko taldea izango da gutxienez.

## DATAK

jarduera igandean izango da, San Juan egunaren aurretik.
Kuota: 3 €.



AURKIBIDEA



# TAILERRAK

Hastapen jardueren helburua: mendiko segurtasunaren arloko oinarrizko ezagupenen bidez kirolariak mendiarekin zerikusia duten gai, jarduera eta alderdi jakin batzuetan hastea eta prestatzea, betiere ingurumena ezagutuz eta errespetatuz. Jarduerok aurrera eramateko tailerrak eta egonaldiak antolatu ditugu.

Tailerretan, modu monografikoan landuko dira espezializaziorako gai edo jarduera zehatzak.

## ORIENTAZIOKO TAILERRA

Orientazioari buruzko tailerrak honako helburu hau du: orientazioari buruzko oinarrizko ezagutzak irakastea parte hartzaileei.

Orientazio tailerrak helburu hauek ditu:

### HAURREN KATEGORIA (1. maila)

- Parte-hartzaileei mendiko orientazioari buruzko oinarrizko ezagutzen berri ematea.
- Plano batean kokatzen ikastea.
- Iparrorratzaren oinarrizko funtzionamendua ezagutzea bideak adierazteko.

### HELDUEN KATEGORIA (2. maila))

- 1. mailako monografikoan eskuratutako ezagutzak zabaltzea.
- Iparrorratzari eta kartografiari, sestra kurbei, eskalei, triangulazioei eta abarrei buruzko kontuak ikastea.
- Haurren eta helduen kategoria bilakaera didaktiko baten bidez lotzea.







## NORENTZAT DA

Kategoria guztientzat.

## IRAUPENA

Tailerrak goiz bateko iraupena du.

## TOKIA

Bilboko Abusu auzoan egingo da tailerra.

## PARTE-HARTZAILEAK

Gehienez ere 20 parte-hartzaile taldean. 8ko taldea izango da gutxienez.

## KUOTA

10 €

# KIROL-ESKALADAKO TAILERRA

Honako hau da kirol-eskaladari buruzko tailerraren helburuak:

### HAURREN KATEGORIA (1. maila)

- Parte-hartzaileei eskaladari buruzko oinarrizko ezagutzen berri ematea.
- Sokaz lotzeko korapiloak egiten ikastea.
- Eskalatzeko behar den oinarrizko materiala ezagutzea.
- Tope-Rope moduan eskalatzea.

### HELDUEN KATEGORIA (2. maila)

- Haurren eta helduen kategoria bilakaera didaktiko baten bidez lotzea.
- Segurtasunari eta aurrera egiteari lotutako kontuak ikastea.
- Sokakidea segurtatzen ikastea.
- Bide bat segurtasun osoz irekitzea.







## NORENTZAT DA

Kategoria guztientzat.

## IRAUPENA

Goiz bateko tailerra izango da.

## TOKIA

Tailerra rokodromo, boulder edo eskalada-eskola egoki batean egingo da. Erakunde eskatzailearen ardura izango da jarduera egiteko lekura joatea

## PARTE-HARTZAILEAK

Gehienez ere 14 parte-hartzaile taldean. 8ko taldea izango da gutxienez.

## KUOTA

10€

# GURASOENTZAKO GPS IKASTAROA MUGIKORREAN

Mendira modu autonomoan joatera ausartzen ez diren pertsonei aukera ematen diegu sakelako telefonoan GPS ikastaro bat egiteko.

## HELBURUAK

Gurasoei GPSari buruzko oinarrizko edukiak ematea erronka segurtasun handiagoz egin ahal izan dezaten.






# EGONALDIAK

Egonaldiak prestakuntza-jarduerak dira: aukera eskaintzen die parte-hartzaileei mendian ibiltzen has daitezen, baina ingurumena errespetatuz eta segurtasunez. Horretarako, tailerrak eta hainbat jarduera egingo dira: mendi-ibiliak, eskalada, rappela, arroila-jaitsierak...; mendiko aterpetxe eta babeslekuetan egingo da lo.

## HAURREN KATEGORIAKO EGONALDIAK

Bi eguneko irteera da eta mendiko aterpetxe batean egingo dute lo.

Kategoria hauei dagozkien jarduerak Gorbeiako Parke Naturalean eta Izarraitzeko Parke Naturalean egingo dira, maiatzean eta ekainean.

## EGONALDIA GORBEIAN / IZARRAITZEN/ ZUGAZTIETAN

### NORENTZAT

Txikien kategoria, eta nagusien kategoriako txikiak. Azken hauek eta kimu kategoriakoek izan dute lehentasuna.

### EDUKIAK

- Eskalada eta rappeleko tailerra.
- Orientazioko tailerra.
- Mendiko igoera bat prestatu eta diseinatzea.

### IRAUPENA

Irteera larunbateko 10:00etan hasiko da, Pagomakurren Gorbeiara joateko, eta Aittolan Izarraitzera joateko eta Zugaztietako BFAren aterpetxean. Itzulera, berriz, igandeko 16.30etan izango da, leku berean.

ESKOLA KIROLA



AURKIBIDEA



## TOKIA

Jarduera hau Gorbeia eta Izarraitzeko mendiguneetan egin daiteke. Horretarako Arrabako Angel Sopeña, eta Erloko Xoxote aterpetxean eta Zugaztietan egingo da lo.

## PARTE-HARTZAILEAK

Gehienez ere 20 parte-hartzaile taldean. Gutxieneko taldea 8 kidekoa izango da. Ubidean gehienez 14 parte-hartzaile.

## EGUNAK

Maiatz eta ekaineko asteburuetan izango dira (finalisten jaiako asteburua izan ezik).

## KUOTA

Jardueraren prezioa 30 € da.

# MENDIZALETASUNEAN HASTEKO EGONALDIA

Bost eguneko egonaldia da, mendiko aterpetxe batean; bertan, mendiari lotutako jarduerak egingo dira, eta, era ludiko batean, mendizale gisa prestatzen joango dira.

## HELBURUAK

- Multiabenturako egonaldi bat eskaintzea eta parte-hartzaileak trebatzea, txikien kategorian, segurtasun, kartografia eta jantzien arloetan.
- Jarduera erakargarriak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera ematea, esaterako, espeleologia, eskalada, arroila-jaitsiera, rappela edo yumarra.

## NORENTZAT

Txikien kategoriakoak eta nagusien kategoriako txikiak.





## IRAUPENA

5 egun.

## TOKIA

Jarduera hau Gorbeiako Parke Naturalean egingo da.

## PARTE-HARTZAILEAK

Gehienez, 20 parte-hartzaile egongo dira, eta gutxienez, 8.

## EGUNAK

Ekainaren amaieran.

## KUOTA

100€.

# HELDUENTZAKO EGONALDIAK:

Jarduerak bi irteera ezberdinetan banatu dira:

- Mendiko eskia: 4 eguneko ibilbidea otsailaren amaieran (Aste Zuria).
- Bibak (5 eguneko irteera ekainaren erdialdean).

# NEGUKO KIROLAK EZAGUTZEKO HASTAPEN TAILERRA BARNEAN HARTZEN DUEN EGONALDIA

Egonaldi horren helburuak dira:

### MENDIKO ESKIAREN HASTAPENA (Alto Campoo edo Pirinioak)

Ondoko hauek dira egotaldiaren helburuak:

- Parte-hartzaileak mendiko eskia praktikatzen hastea.
- Praktikarako behar den materiala ezagutzea.
- Kranpoien eta pioletaren erabilera finkatzea





- Plano batean ibilbide seguru bat diseinatzen ikastea, gero tokian bertan gauzatzeko.
- Ingurunea behar bezala irakurtzen ikastea, elur-jausiak aurreikusteko.
- Elur-jausietan jarduteko protokoloak ezagutzea.
- Mendiko eskian eta eski-estazio barruan eskiatzekoa den eremuan tratatu gabeko elurretan eskiatzen hastea.
- Ikastetxeetako parte-hartzaileen artean ezagutza sustatzea.

## NORENTZAT

Helduentzat

## IRAUPENA

Lau eguneko irteera da, joan-etorria barne.

## TOKIA

hastapen tailerrari buruzko egonaldia Alto Campoo-n (Kantabria) edo Pirinioetan. egingo da. Toki zehatza meteorologia eta mendiaren baldintzen arabera baieztatuko da.

## PARTE-HARTZAILEAK

16ko taldea izango da gehienez, eta 8ko taldea, gutxienez.

## DATAK

Jarduera oporren aste zurian (inauteriak) egingo da.

## KUOTA

Jardueraren prezioa 140 eurokoa da.

ESKOLA KIROLA




AURKIBIDEA

# EGONALDIA MENDI - IBILIEN ETA BIBAKAREN HASTAPEN-TAILERRAREKIN

Egonaldiaren helburua da zenbait egunez mendi-ibilaldi bat babes-lekurik gabe egiteko gune garrantzitsuak diseinatzen eta ezagutzen irakastea.

## NORENTZAT

Helduentzat

## IRAUPENA

Bost eguneko irteera da, joan-etorria barne.

## TOKIA

Urkiola eta Gorbeia inguruak.

## PARTE-HARTZAILEAK

16ko taldea izango da gehienez, eta 8ko taldea, gutxienez.

## DATAK

Jarduera uztaileko bigarren astean egingo da.

## KUOTA

Jardueraren prezioa 100 eurokoa da.

← AURKIBIDEA

# NEGUKO KIROLAK

## HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK






AURKIBIDEA

# ESKI ALPETARRA

**Programa honen barruan, abendutik martxora bitartean asteburuko eta Gabonetako irteerak egingo dira Candanchuko eski-estaziora.**

**ASTEBURUKO ETA GABONETAKO IRTEERAK**

## EGITARAUA

- Ostiral arratsaldean irteera (Termibus); bidaia autobusez egingo da.
- Larunbatean eski-materiala alokatuko da: taulak, makilak, botak eta kaskoa.
- Larunbat eta igandean 2 orduko ikastaroa, tituludun irakasleek emanda.
- Gainerako orduetan praktikaldia.
- Igandean, 17:00etan, Bilbora itzuliko da, eta gutxi gorabehera 21:15etan iritsiko da Termibusera.

## PARTAIDETZA

2011-12-13-14-15-16-17-18 urteetan jaiotako ikasle guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Irtenaldiak egun hauetan egingo dira:

- 2026ko abenduaren 21ean, 22an eta 23an 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2026ko abenduaren 28an, 29an eta 30ean 2015-16-17-18 urteetan jaiotako ikasleak.





- 2027ko urtarrilaren 8an, 9an eta 10ean 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2027ko urtarrilaren 15ean, 16an eta 17an 2015-16-17-18 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2027ko urtarrilaren 22an, 23an eta 24an 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak
- 2027ko urtarrilaren 29an, 30ean, 31n 2015-16-17-18 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2027ko otsailaren 5ean, 6an eta 7an 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak
- 2027ko otsailaren 12an, 13an eta 14an 2015-16-17-18 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2027ko otsailaren 19an, 20an eta 21ean 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak.
- 2027ko otsailaren 26an, 27an eta 28an 2015-16-17-18 urteetan jaiotako ikasleak
- 2027ko martxoaren 5ean, 6an eta 7an 2011-12-13-14 urteetan jaiotako ikasleak.

Ostiraletan izango dira, 19:00etan, Gabonetakoa izan ezik, asteartean izango baita, ordu berean. Irteera Termibus - Bilboko autobus-geltokitik izango da (Gurtubai kalea 1).

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Eskainitako plaza-kopurua nahikoa ez bada, inskribatu diren guztien artean zozketa egingo da.
- Izena emateko kuota 195 eurokoa (175 € materiala edukitzen bada) izango da pertsona bakoitzeko. Ordainketa hemen egingo da:




**Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa.**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tel.: 94 441 10 63 / info@fvdi.org - 48003 Bilbo

## OHARRAK

Izena emateko kuotaren barruan hauek sartzen dira:

- Garraioa.
- Tituludun irakasleek emandako 2 orduko ikastaroa.
- Eskiatzeko materiala (oholak, bastoiak, botak eta kaskoa).
- Forfaita 2 egunetan (pistetara sartzeko txartela).
- Ostiral eta larunbateko ostatua.
- Larunbatean: gosaria, bazkaria pistetan, afaria.
- Igandean: gosaria eta bazkaria pistetan.
- Pistetarako istripu-asegurua.
- Monitoreak.
- Parte hartzaileek honako hau eraman beharko dute:
  Arropa egokia, betaurrekoak, eskularruak.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa.
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
48003 Bilbo
Tfno.: 94 441 10 63
Web orria: **www.bnkf.org**
E-mail: **info@fvdi.org**






# IZOTZ GAINEKO PATINAJEA

**Programa honen barruan, egun bateko irteerak egingo dira Gasteizko izotz-pistara, 2027ko urtarrilean, otsailean, martxoan eta apirilean.**

## EGITARAUA

- 09:00etan irteera (Termibus); bidaia autobusez egingo da.
- Patinak alokatuko dira.
- Ordubeteko ikastaroa, tituludun irakasleek emanda.
- Gainerako orduetan praktikaldia.
- 13:00etan berriro Bilbora. Gutxi gora behera 14:00etan Termibusera helduko da.

## PARTAIDETZA

2019-18-17-16-15-14-13-12-11urteetan jaiotako ikasle guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak egun hauetan egingo dira:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2027/01/31 | 2027/02/07 | 2027/02/14 | 2027/02/21 |
| 2027/02/28 | 2027/03/07 | 2027/03/14 | 2027/03/21 |
| 2027/04/04 | | | |

Ikastetxeetan izena emateko datak ikastetxean bertan zehaztuko dira (30 kirolari edo gehiago).

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

INSKRIPZIO INDIBIDUALA EDO IKASTETXEAREN IZENEAN (29 kirolari gehienez)

- Inskripzioa web orrian egin ahal izango da: **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola**






erakunde baten bitartez (29 KIROLARI GEHIENEZ) edo modu indibidualean (aitak edo amak).
- Ez da zozketarik egingo.

### INSKRIPZIOA IKASTETXEAREN IZENEAN (30 kirolari edo gehiago)

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez.
- Ez da zozketarik egingo.
- Izena emateko kuota 24 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko.
  Ordainketa hemen egingo da:
  **Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa**
  K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27. 48003 Bilbo
  Tel.: 94 441 10 63
  info@fvdi.org

## OHARRAK

Izena emateko kuotaren barruan hauek sartzen dira:
- Garraioa.
- Patinak alokatzea.
- Kaskoa 8 urtetik 12 urtera bitartean, derrigorrezkoa eta doan; 13 urtetik 16ra aukerakoa eta doan.
- Ordubeteko ikastaroa.
- Monitoreak.

Parte hartzaileek honako hauek eraman beharko dituzte: Arropa egokia, eskularruak...

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa.
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27. 48003 Bilbo
Tel.: 94 441 10 63
Web orria: **www.bnkf.org**
E-mail: **info@fvdi.org**








# KORRICAN

Neguko Kirolen Bizkaiko Federazioko monitoreek emango dituzte txakurkrosean hasteko «KorriCan» ikastaroak.

Ikastarook 3 ordu irauten dute, eta gai hauek jorratzen dituzte:

- Formakuntza teoriko-praktikoa.
- Txakurren heziketarekin eta etologiarekin lotutako praktika.
- Txakurkros praktika.

## I.MAILAKO EGITARAUA

- Txakurren heziketa, eta txakurkrosarekin duen lotura.
- Txakurkrosaren jatorria eta kirol-ezaugarri teknikoak.
- Txakurkrosa arautzen duen kirol-araudia.
- Txakurkros-zirkuituen ezaugarri nagusiak.
- Trakurkros praktika.

## II.MAILAKO EGITARAUA

- Txakurkrosari aplikaturiko txakur-hezkuntza.
- Segurtasunari eta txakurraren osasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak.
- Txakurraren etologia ariketan dihardueneam.
- Txakurkroserako berariazko materiala.
- Arnesa hautatzea eta doitzea.
- Txakurkroseko lasterketa-teknika.
- Gidariaren eta txakurraren arteko komunikazioa.
- Segurtasuna, erreskatea eta gorabeheretarako oinarrizko protokoloak



## PARTE-HARTZEA

- 2011/2012/2013/2014an jaiotako eskola-umeek parte hartu ahal dute.
- II. mailan parte hartu ahal izango dute aldez aurretik KorriCan hastapen-ikastaroetan parte hartu duten eta Bizkaiko Eskola Kirolaren Programan izena emanda dauden ikasleek. Parte-hartzaileek euren txakurrarekin joan beharko dute.

## DATAK

- I. maila ikasturteko asteburuetan emango da, urrian eta otsailean, honako data hauetan:
  26/10/11 27/02/14

- 2026ko abenduaren 13an emango da II. mailako ikastaroa, Mendikosolo parkean (Arrigorriagan).

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** Web-orrian eman ahalko da izena, dela entitate baten bidez, dela banaka (gurasoek inskripzioa eginda). Gutxienez 6 eta gehienez 16 parte-hartzaile onartuko dira eguneko.
- Ez da zozketarik egingo
- Izen-ematearen kuota 8 eurokoa izango da pertsonako, eta Neguko Kirolen Bizkaiko Federazioan ordainduko da, edo banku-kontuaren bidez.




## OHARRAK

- Eguraldiaren ondorioz edo ezinbesteko kausengatik geroratu ahalko dira.
- Ikastaroaren bat bertan behera geratzen bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuliko da.
- Trail-eko edo korrika egiteko zapatilak eraman beharko dira, kirolean jardutean parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko, bai eta eguraldi txarrerako egokia den arropa ere, euria egiten badu.

## INFORMAZIOA

Informazio gehiagotako, jo hona:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
Martín Barua Picaza kalea 27.
Tel.: 944 410 900





# PADEL

## PROGRAMA

- Heldulekuak.
- Oinarrizko kolpeak (eskuin-kolpea, errebesa, bolea, smash-a, paretan jo ondoren eramatea, sakea eta errestoa).
- Lehen ezagupen taktikoak.
- Lehiaketaren simulazioa.

## PARTE HARTZEA

2013/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak 2026ko urritik 2027ko ekainera bitartean egingo dira.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Inskribatu den ikasle bakoitzeko, 5 euro ordaindu beharko dira.
- Ordainketa hemen egingo da: Caja Rural ES83 3008 0275 89 3881336220.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:
Bizkaiko Padel Federazioa: K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27.
48003Bilbo T.: 944 433 850
**info@bizkaiapadel.com**
**www.bizkaiapadel.com**

← ESKOLA KIROLA




← AURKIBIDEA

# PARKOUR

Ikastaroek 8 orduko iraupena dute (2 orduko 4 saio)

## PROGRAMA

- Ikuspegia eta mentalitatea
- Segurtasuna eta autobabesa
- Jauzi egiteko, gora egiteko eta oztopoak gainditzeko oinarrizko teknikak:

**OROKORRA** azalpena, beroketa, ikasteko ariketa teknikoak eta horiek zirkuituetan integratzeko lana.

**S1: JAUZIAK** erortzeak, harrerak, jauziak eta oreka lantzeko teknikak, «zorua laba da» moduko ariketak eta jolasak, eta ibilbide tematikoak.

**S2: OZTOPOAK**: koadrupedia-teknikak, itzulipurdiak, oztopo-jauziak, underbar direlakoak eta 3x3 ibilbideak.

**S3: GORA EGITEA**: eskalada-teknikak, beso-jauziak eta «tic-tac»ak eta erronka kooperatiboak, zeharbideak eta ibilbide tematikoak.

**S4: IBILBIDEAK**: ikusitako guztia berrikustea, nork bere ibilbideak sortzea, eta tarteko erronkak.

## PARTE HARTZEA

2011/12/13/14/15/16/17 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.





## DATAK

Ikastaroak igande goizez egingo dira (09: 30-11:30, 8-11 urte artekoentzat; eta 11:30-13: 30, 12-15 urte artekoentzat), 2 alditan.

- **UDAZKENA:** urria-azaroa
- **UDABERRIA:** apirila-maiatza

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak doan izango dira.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:
Bizkaiko Gimnastika Federazioa:
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27.
48003Bilbo
944413834
**fbgimnasia@fbgimnasia.eus**
**www.fbgimnasia.eus**

ESKOLA KIROLA




AURKIBIDEA

# PETANKA

**Hastapen-ikastaroek 10 orduko iraupena izango dute, lau astetan banatuta, astean bi egunetan.**

## EGITARAUA

- Petankaren dinamikaren azalpena, ahal bada ikus-entzunezkoen laguntzarekin.
- Erabiltzen diren materialak eta pistaren deskribapena (neurriak): bolak, bolitxeak, uztaiak, metroa, etab.
- Tiroa eta hurbiltzea, mugimendu hauek noiz erabili.
- Mugimenduen teknika.
- Kokapena (3 posizio): jarrerak eta inertzia.
- Ariketak: barra paraleloak, tiratzen hastea eta barra paralelo direkzionalak.
- Makilak formazioan.
- Hiru marran.
- Gurpila.
- Doitasun-tiroa.
- Tiroak oztopoekin.
- Doitasun-ariketak.
- Uztai inklinatua.
- Ginkana (zirkuitua).
- Erdiko pista.
- Tiro-lehiaketa.
- Osaera askeko taldekako lehiaketa.

## PARTAIDETZA

2016, 2017 eta 2018an urteetan jaiotako eskola-umeek parte hartu ahal dute.





## DATAK

- Ikastaroak 2026ko urritik 2027ko maiatzera bitartean egingo dira.
- Ikastetxearen inskripzioaren kasuan, entitatearen eta Bizkaiko Petanka Federazioaren artean zehaztuko da ordutegia.

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo
- Ikastaroak doan izango dira.

## OHARRAK

- Parte-hartzaileek txandala eta kirol-oinetakoak jantzita eraman beharko dituzte.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900



AURKIBIDEA



# PIRAGUISMOA

Iraupena 4 ordutik 8ra bitartekoa da, eta 2-4 egunetan banatu daitezke, aste barruan edo asteburuetan, klub antolatzailearekin adostutakoaren arabera.

## I. MAILAKO EGITARAUA

- Materiala ezagutzea.
- Endai-jokoaren oinarri teknikoak, lehorrean eta uretan.
- Untzian sartzeko eta untzitik irteteko teknikak ikastea.
- Segurtasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak.
- Piragua norabideratu eta higiarazteko oinarrizko maniobrak ikastea.

## II. MAILAKO EGITARAUA

- Piragua desberdinak probatzea.
- Endai-jokoaren oinarrizko kontzeptu teknikoak praktikatzea.
- Uretan irauli eta atoian eramateko praktikak.
- Piraguan oreka garatzea.
- Piraguaren kontrola eta higitzeko transmisioa garatzea.

## PARTAIDETZA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.




## DATAK

Ikastaroak martxoan eta urrian izango dira, eta piraguismo klubek emango dituzte.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.
- Kuota 48 euro izango da 8 orduko ikastaroaren kasuan, eta 28 euro, 4 orduko ikastaroaren kasuan.

## OHARRAK

- Hastapen-ikastaroetan parte hartzen dutenek ikasten jarraitu ahal izango dute klubetan.
- Ikastaroetan parte hartzeko ezinbestekoa da igeri egiten jakitea.
- Behin inskripzioa eginda eta federazioak hura berretsita, klubek ikastaroak egiteko datak eskainiko dituzte.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900




# SURF

Ikastaroak, Bizkaiko Surf Federazioko begiraleek emango dituzte Bizkaiko kostaldeko hondartzetan.

Ikastaroek 6 orduko iraupena dute, ordu eta erdi lanaldi bakoitzeko; beraz, guztira 4 saio izango dira, aste barruan eta/edo asteburuetan, ikastaroak emango dituzten klub eta monitoreen eskuragarritasunaren arabera.

## EGITARAUA I. MAILA

- Itsasoa eta materiala ezagutzea.
- Oinarrizko arraunketa-teknika eta take-offa lehorrean ikastea.
- Uretan oholaren gainean etzanda maniobras ikastea.
- Oreka etzanda eta eserita menperatzea, lehenengo bitsarekin ikasiz.

## EGITARAUA II. MAILA

**Itsas ingurunea ezagutzea:**
- Korronteak eta nola sortzen diren.
- Nola irten korronte batetik eta praktikan jartzea.
- Itsasaldiak, surf egiteko lekurik onenak.
- Surf eremua. Banderak eta noiz erabiltzen diren.
- Segurtasuna: itsasoaren egoera surf egiteko, maila bakoitzean.
- Lehentasunak olatuetan.
- Olatu gainean datozen surflariekiko segurtasun-distantziak.

**Taula gainean arraun egiteko teknika:**
- Line up-erantz arraun egitea.
- Olatua hartzeko arraun egitea.



- Arraun eginez leku batetik bestera joatea.
- Olatu azpitik pasatzea.

**Esertzeko teknika:**
- Taula gainean jartzea.
- Biratu, taulan etzan eta arraun egiten hastea.

**Lehertu gabe dagoen olatua hartzeko moduan jartzea:**
- Eserita ikustea nola datozen olatuak.
- Olatuak irakurtzen ikastea.
- Olatuan joatea (nola jarri taulan, abiadura, saihestea, etab.).
- Olatuan oinarrizko maniobrak ikastea.

## PARTAIDETZA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak emango direneko egunak hauek izango dira:
2027ko apiriletik irailera bitartean.

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).
- Ez da zozketarik egingo.







- Izena ematearen kuota pertsona bakoitzeko 30 eurokoa izango da eta ordainketa Bizkaiko Surf Federazioan edo bankuaren bitartez egin beharko da.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko, ezinbestekoa da igeri egiten jakitea eta ur-ingurunea menderatzea.
- Eguraldia edo beste edozein arrazoi dela medio ikastaroak bertan behera utzi behar badira, beste egun baterako utzi edo beste hondartzaren batean egingo da.
- Ikastaroren bat bertan behera utzi behar bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuli egingo da.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:

**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900 / 665 268 582




# BODYBOARD

Ikastaroak, Bizkaiko Surf Federazioko begiraleek emango dituzte Bizkaiko kostaldeko hondartzetan.

Ikastaroek 6 orduko iraupena dute, ordu eta erdi lanaldi bakoitzeko; beraz, guztira 4 saio izango dira, aste barruan eta/edo asteburuetan, ikastaroak emango dituzten klub eta monitoreen eskuragarritasunaren arabera.

## EGITARAUA

- Itsas ingurunea eta materiala ezagutzea
- Hegalei eragitea eta lehorreko posizionamendua.
- Take off eta aparretan norabidea hartzea.
- Take off eta oinarrizko maniobrak olatuan.

## PARTAIDETZA

2009/10/11/12/13/14/15/16/17/18 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak emango direneko egunak hauek izango dira:
2027ko apirilatik irailera bitartean.

## IZEN EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke, erakunde baten bitartez edo norberaren kabuz (izen-ematea amak edo aitak egitea).





- Ez da zozketarik egingo.
- Izena ematearen kuota pertsona bakoitzeko 30 eurokoa izango da eta ordainketa Bizkaiko Surf Federazioan edo bankuaren bitartez egin beharko da.

## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko, ezinbestekoa da igeri egiten jakitea eta ur-ingurunea menderatzea.
- Eguraldia edo beste edozein arrazoi dela medio ikastaroak bertan behera utzi behar badira, beste egun baterako utzi edo beste hondartzaren batean egingo da.
- Ikastaroren bat bertan behera utzi behar bada, ordaindutako kuoten zenbatekoa itzuli egingo da.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:

**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900 / 665 268 582




← AURKIBIDEA

# TAEKWONDOA

Ikastaroak Bizkaiko Taekwondo Federazioko monitoreek emango dituzte hainbat klubetan.

6 orduko iraupena dute, astelehenetik ostiralera, goizez edo arratsaldez.

## EGITARAUA

- Taekwondoa egiteko leku eta material egokiak ezagutzea.
- Gorputza berotzea ariketa eta jolasen bidez.
- Pumseak ikastea.
- Borroka eta defentsako tekniken oinarrizko ikaskuntza.
- Ikasleen artean borroka txikiak egitea.

## PARTAIDETZA

2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

Ikastaroak data hauetan emango dira: 2027ko ekainetik uztailera.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa web orrian egin daiteke (**http://www.bizkaia.eus/eskolakirola**), erakunde baten bitartez edo modu indibidualean (aitak edo amak).



- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak doan izango dira.

## OHARRAK

- Motxila, praka laburrak, kamiseta eta kirolerako oinetakoak ekarri behar dira.
- Higiene pertsonalerako, aldatzeko arropa eta dutxarako gauzak ekarri behar dira.

## INFORMAZIOA

Informazio gehiago nahi izanez gero:
**Bizkaiko Taekwondo Federazioa.**
Tel.: 944418408.
**taekwondo@asfedebi.eus**




# TXIRRINDULARITZA

Hastapen jardueren bakoitzeko iraupena 4 ordutakoa izango da, 2 egunetan banatuta

## EGITARAUA

- Materiala ezagutzea.
- Txirrindularitza-teknikaren oinarriak ikastea.
- Gymkanak egitea.
- Bizikletaren mekanika ikastea.

## PARTAIDETZA

2013/2014/2015/2016/2017/2018/2019/2020an jaiotako gazteek parte har dezakete.

## DATAK

Hastapen jarduerak 2026ko azarotik 2027ko apirilera bitartean egingo dira eta Federazioko teknikariek emango dituzte, Bizkaiko ziklismo taldeen laguntzarekin.

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa web orrian egin daiteke (**http://www.bizkaia.eus/eskolakirola**), erakunde baten bitartez edo modu indibidualean (aitak edo amak).
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak doan izango dira.





## OHARRAK

- Ikastaroetan parte hartzeko ezinbestekoa da bizikletan ibiltzen jakitea.
- Jardueren tokiak Bizkaiko eskualdeetan aukeratuko dira: Enkarterri, Arratia, Durangaldea, Alto Nervión, Bilbao, Lea-Artibai, Busturialdea, Ezkerraldea, Margen Derecha y  Txorierri.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara:
Eskola Kiroleko bulego nagusia
Martín Barua Picaza, 27 48003 BILBO
Tel.: 944 410 900

← ESKOLA KIROLA



← AURKIBIDEA



# URPEKO JARDUERAK
# URPEKARITZA

## EGITARAUA

- Jarduerаren aurkezpena.
- Urpekaritzako materialari buruzko azalpena: betaurrekoak, tutua eta aletak.
- Urpekaritzari gainbegiratua ematea.
- Aire konprimituko ekipamenduaren erabilerari buruzko azalpena. Segurtasun arauak.
- Materiala lehen aldiz uretan erabiltzea.
- Aire konprimituko ekipamenduekin murgiltzea, uneoro irakasleak lagundurik.
- Diplomak eta agurra.

## PARTE HARTZEA

2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetan jaiotako ikasleek parte har dezakete.

## DATAK

- Iraupena egunean bi/hiru ordukoa izango da eta urritik ekainera arteko larunbatetan burutuko da.

- Ikastetxeak astelehenetik ostiralera egin nahi izanez gero, banaka aztertuko litzateke ikastaroaren egitaraua moldatzeko.



## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke.
- Inskripzioa erakunde baten bitartez baino ezin da egin.
- Ez da zozketarik egingo.
- Ikastaroak dohainik izango dira

## OHARRAK

- Irakasleak eta materiala Bizkaiko Lurraldeko Urpekaritza Jardueren Federakundearen kontu geratuko da.
- Urpekaritza-bataioa eskatu duen erakundeak igerilekuko bi kale gutxienez kudeatu beharko ditu.
- Taldeak gutxienez 6 eta gehienez 10 ikaslek osatuak egongo dira.
- Jarduera honetan parte hartu ahal izateko igerian jakitea ezinbesteko baldintza da.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiagorik nahi izanez gero, hona jo:
Bizkaiko Urpeko Jardueren Federazioa
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 615785950




# XAKE

8 orduko bi ikastaro izango dira

## EGITARAUA

- Taula (diagonalak, zutabeak eta errenkadak); piezak nola jarri.
- Piezen mugimenduak.
- Hainbat kontzeptu: xakea, xake-matea eta errege itoa.
- Endrokea.
- Oinarrizko mateak: dorre biak eta erregea beste erregearen aurka; dama eta erregea beste erregearen aurka, eta dorre bat eta erregea beste erregearen aurka.
- Idazkera algebraikoa.

## PARTAIDETZA

- Gaur egun jarduera hori ez duten ikastetxeei zuzendua.
- 2013/14/15/16/17/18/19 urteetan jaiotako haur guztiek parte har dezakete.

## DATAK

- Ikastaroak abendutik ekainera bitartean egingo dira eta Xake Begiraleen Bizkaiko Elkarteak gainbegiratuko ditu.
- Ordutegia Ikastetxeak eta Bizkaiko Xake Federazioak zehaztuko dute euren artean.




AURKIBIDEA

## IZEN-EMATEA ETA KUOTA

- Inskripzioa **http://www.bizkaia.eus/eskolakirola** web orriaren bidez egin daiteke.
- Inskripzioa erakunde baten bitartez baino ezin da egin
- Ez da zozketarik egingo.
- Erakundeak 48 euro ordainduko ditu.
- Ordainketa hemen egingo da:
  BBK erakundea, 2095 bulegoa,
  0113- k.d 19.
  Kontu zk. 38-3060213-1
  Bizkaiko Xake Federazioa

## OHARRAK

Materiala federazioak utziko die.

## INFORMAZIOA

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara:
**Eskola Kiroleko bulego nagusia**
K/ Martín Barua Picaza kalea nº 27
Tfnoa: 944410900

ESKOLA KIROLA

2026 | 27



ESKOLA KIROLA

# LEHIAKETA JARDUERAK

Bizkaia

kirolur

BIZKAIA
EUROPAKO KIROL LURRALDEA
TERRITORIO EUROPEO DEL DEPORTE




## 15. OINARRIA. LEHIAKETAKO ARAUDI OROKORRA

Lehiatzeko kirol modalitate guztiek lehiaketa araudi orokor bera izango dute, ondorengo web gunean argitaratuko dena:
**www.bizkaia.eus/eskolakirola**

Lehiaketako araudi orokorrak ezarritako esparruaren barruan taldearen bat antolatu ezin duten entitateek (parte-hartzaile kopuruagatik; eskualde, herri edo sexu irizpideengatik; goragoko edo beheragoko kategoria baten parte hartzeagatik, eta abar) kontsulta egin diezaiokete Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Atalari (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua – Bilbo. E-posta: eskola.kirola@bizkaia.eus). Atal horrek egingo du kasu jakin bakoitzaren gaineko txostena, eta jarduera ahalik eta ondoen geratzeko konponbide egokia bilatuko du.

## 16. OINARRIA. PARTAIDETZA

**1.** Programan parte hartzen duten entitateek  instalazio egokiak izan behar dituzte izena eman duteneko jarduera egiteko.

**2.** Kirolarien egonkortasuna. Entitateko plantillaren Futboleko kirol modalitateetan, bai gizonezkoenean bai mistoan (F7 eta F11) Bizkaian egoitza duten Kirol Elkarte edota Klubek aurreko denboraldian entitate horretan izena emandako kirolarien % 85a mantendu beharko dute. Ez dira kontuan hartuko aurreko denboraldian aipatutako kirol modalitateren batean  izena emanda  egon ez diren eskola adineko kirolarien altak.

Baldintza hau betetzen ez badute entitatek lehiaketa jardueretan parte hartzeagatiko diru laguntzak jasotzeko aukera galduko du.

Halaber, Errendimenduari Ekiteko Ibilbidean parte hartzeko eskubidea galduko dute (R ligak) hurrengo Eskola Kiroleko programan.





Ez zaie atal honetan ezarritakoa aplikatuko aurreko denboraldian F7 eta F11ko talderik aurkeztu ez duten entitateei.

**3.** Lehiaketek iraun bitartean, taldekako eta banakako kiroletan, osaeran aldaketak egin ahalko dira.

Aldaketak 2027ko martxoaren 31 baino geroago egiten badira edo, udako hilabeteetan egiten diren jardueren kasuan, lehiaketaren azken hilabetearen barruan, azken faseari uko egiteko idazkia aurkeztu beharko da.

Taldeko kiroletan talde osoari eragingo dio uko egiteak. Banakakoen kasuan, aldiz, kirolariak egingo dio uko.

**4.** Taldekako kiroletan, entitate parte hartzaileek (kirol taldeek eta elkarteek, ikastetxeek, guraso elkarteek) beste erakunde batzuetan ikasten duten kirolariak inskribatu ahal izango dituzte. Ikasketak egiten ari den ikastetxeak modalitate, kirol-kategoria eta sexu berean izena ematen badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen baimen-idazki nominala aurkeztu beharko du, eredu ofizialaren **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzeko eskubidea izango du.

**5.** Banakako kiroletan, entitateek beste ikastetxe batzuetan matrikulatutako kirolarien izenak eman ditzakete, baldin ikastetxe horiek kirol modalitate berbererako izena ematen ez badute. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko kirolaz arduratzen den zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzeko eskubidea izango du.




Kirolariak/ek ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen baimen-idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren araberakoa (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

**6.** Gurasoak zaintza partekatuan edo banantze- edo dibortzio-prozesuan duen kirolari bati modalitate jakin batean alta/baja emateko, entitate inskribatzaileak bien berariazko baimena beharko du (eredua entitateen eskura egongo da **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean).

**7.** Eskola Kirola egitarauan izena emana duten eta parte hartzeari utzi nahi dioten taldeek edo/eta partaideek idatziz jakinarazi beharko dute bajarako eskaria.

Kirolari bati baja emateko, haren aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak beren-beregi emaniko baimena izan behar du kirolaria izena emanda dagoen entitateak (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean).

Modalitateren batean izena emana duten taldeei edo/eta partaideei, horretarako programatutako jardueren batean parte hartzen ez badute, baja emango zaie.

Halaber, kirolaz arduratzen den zerbitzuak baja eman diezaieke entitate, talde, teknikari zein kirolariei, denboraldian zehar gerta daitezkeen inguruabar desberdinen kariz.

**8.** Norgehiagoka bakoitzean kirolari-aldaketak egin daitezkeen talde-modalitateetan (Futbola, Eskubaloia, Errugbia etab.) izena emandako pertsona guztiek jardunaldi bakoitzean gutxieneko eta etengabeko denbora-tarte batean parte hartu beharko dute, kirol-diziplina bakoitzeko joko-araudietan jasotzen den bezala.






Hori dela eta, helburu bakarra emaitza duten kirolarien deialdirik ez da egingo. Kirol hastapen adin hauetan emaitzak ez luke izan behar helburu behinena.

Dekretu honi dagokionez, deialdi batek emaitzak lortzea beste helbururik ez duela joko da baldin eta kirolari bat lehiaketa batetik kanpo uzten bada eta horren arrazoia ez bada hauetarikoren bat:

a) Lesioa edo gaixotasuna.
b) Erakundearen diziplinazko neurri bat.
c) Federazioaren zehapena.
d) Eskola-umeak ezinezko izatea parte hartzea.
e) Izena ematen duten eskola-umeen kopurua handiagoa izatea deialdian sar daitezkeenena baino. Halakoetan, ekitatiboki banatu behar da, izena emandako kirolari guztiek antzeko partida kopuruan parte har dezaten.

Eskola Kirolaren Atalak partida bakoitzeko arbitroen aktak begiratuko ditu ikusteko ea deialdi baten helburua emaitzak lortzea den bakarrik ala ez. Horretarako, entitateek eta klubek ondoren aipatzen den dokumentazioa jarri beharko dute Eskola Kirolaren Atalaren esku, kasuan kasuko arrazoia kontuan harturik:

a) Lesioa edo gaixotasuna egiaztatzen duen agiri bat, halakoak emateko eskumena duten osasun-langileek emana (medikuek).
b) Diziplinazko neurriaren jakinarazpena (zehapena eragin duen gertaera jasota), adin txikikoa den kirolariaren aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak sinatua (entitateen eskura eredua hemen: **www.bizkaia.eus/eskolakirola).**
c) Bizkaiko federazioaren zehapenaren jakinarazpena.
d) Ez-egotearen jakinarazpena, adin txikikoa den kirolariaren aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak sinatua.
e) Erabili den sistema ekitatiboaren deskripzioa.

Emaitzak lortzea beste helbururik ez duten deialdiak egiten dituzten entitateek ezingo dute izan lehiatzeko kirol jardueretan parte hart-




zen duten erakundeentzako diru-laguntza foralen onuradun, ez eta halako jarduerak bezalaxe Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartzen den Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten entitateentzako laguntzen onuradun ere.

Halaber, Errendimenduari ekiteko ibilbidean (R ligetan) parte hartzeko eskubidea galduko dute hurrengo Eskola Kiroleko Programan, edo zenbait urtetan, emaitzak lortzeko helburuarekin egindako deialdiak denboraldietan edo talde kopuruan errepikatzen badira.

Era berean, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan jasotako zehapenak aplikatu ahal izango dira.

**9.** Talde-modalitateen azken faseetan, talde bakoitzean izena emanda dauden kirolari guztiek parte hartu beharko dute.

Bestela, eta partida hasi aurretik, oinarri honetako 8. puntuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, parte hartu ez duen kirolari bakoitza zergatik ez dagoen justifikatzeko.

Ez-betetzeak partida galtzea ekarriko du, oinarri honen 8. puntuan aipatutakoaz gain.

**10.** Futbol R eta A-n izena eman duten taldeek berauetan izena emandako jokalarien % 80ko asistentziarekin parte hartu beharko dute partida guztietan. Talderen batek ez balu lortuko partida atzeratzea eta aipatutako gutxieneko ehunekora iristerik ez balu izango, partida galdutzat emango zaio. Bi taldeak balira arau hau betetzen ez dutenak, biei emango zaie partida galdutzat.




## 17. OINARRIA. ESKOLA KIROLEKO LIZENTZIAK

**1.** Izena eman duen pertsona orok (kirolari, Eskola Kiroleko arduradun, ordezkari, entrenatzaile, laguntzaile eta praktiketakoa) lehiaketarako akreditatzen duen lizentzia jasoko du. Datu pertsonalez, taldeaz eta erakundeaz gain, lizentziak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Argazki digitalizatu bat, duela gutxi egina.

b) Kirolarien kasuan, adin txikikoaren aitak, amak, legezko ordezkariak edo zaintza duen pertsonak sinatutako agiria, adierazten duena batetik, haurra kirola egiteko osasun egoera egokian dela eta bere gain hartzen duela horren erantzukizuna, eta, bestetik, onartzen dituela Bizkaiko Eskola Kirola Programak urte horretako denboraldirako ezarritako gainerako arauak.

**2.** Lehiaketa guztietan, izena eman duten pertsonek (kirolariek eta teknikariak) aurkeztu beharko dituzte lizentzia eta agiriak, behar bezala beteta, aurreko agirietan azaltzen diren datuak egiazkoak direla berresteko. Gainera, epaileek, arbitroek eta Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako pertsonalak zalantzarik izanez gero parte-hartzaileen adinaz edo nortasunaz, lizentzia eta agiri horiek eskatu ahalko dituzte.

## 18. OINARRIA. TITULAZIOAK

**1.** Kirol-teknikariek ondorengo titulazioa izan beharko dute:

a) Kirol-zuzendaria:
- Kirol bakarreko entitateentzat: kirol-disziplina edo modalitate horretako goi mailako kirol-teknikaria (III. Maila,) edo horren baliokidea.
- Kirol anitzeko entitateentzat: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua, edo horren baliokidea.

b) Kirol-arduraduna:




- Kirol bakarreko entitateentzat: kirol-disziplina edo modalitate horretako kirol-teknikaria (II. maila), edo horren baliokidea.
- Kirol anitzeko entitateentzat: Lanbide Heziketako tituluen katalogoan jasotako gorputz- eta kirol-jarduerETAKO lanbide-arloko edozein teknikaria-titulu (GKEGT, GKIAGT, EFGT) edo Irakasle-ikasketak Gorputz Hezkuntzaren arloan, edo horien baliokidea.

c) Arduradun administratiboa:
- Kirol bakarreko entitateentzat: kirol-disziplina edo modalitate horretako kirol-teknikariaren hasierako ikastaroa (I. maila), edo baliokidea.
- Kirol anitzeko entitateentzat: EKBL edo baliokidea. Ikastetxeen eta guraso-elkarteen kasuan, hastapen- edo jolas-jardueretan bakarrik parte hartzen badute, ez zaie kirol-titulaziorik eskatuko.

d) Entrenatzailea: kirol-disziplina edo modalitate horretako kirol-teknikariaren hasierako ikastaroa (I. maila) edo baliokidea.

Kirol-disziplina edo modalitate zehatz batean ez badago behar den titulaziodun entrenatzailerik nahiko, titulazio horren beheragoko hurrengo titulazioa eskatuko da.

Titulazio horiek lehiaketa bakoitzean izena emateko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko dira.

Teknikariak, izena emateko unean, eskatutako titulazioa ikasten ari badira, prestakuntza hori egiten ari dela egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute. Diru laguntzaren ondorioetarako baloratu nahi izanez gero, dagokion modalitateko eskola-kirolaren programa amaitu baino lehen aurkeztu beharko da titulua.

**2.** Beharrezko titulazioa duen langilerik ez badago, kirol-zuzendaritza, kirol-arduradun edo arduradun administratibo gisa behin-behi-




nean aritzeko gaituko da horrelako lanetan gutxienez bost, lau eta hiru denboralditan, hurrenez hurren, ibilitakoa .

Era berean, tituludun entrenatzailerik ez badago, horrelako lanak gutxienez lau denboralditan egin dituena gaituko da behin-behinean entrenatzaile-lanetarako.

EKBL edo titulu baliokiderik duten entrenatzaileen kasuan, behin--behinean gaituko dira, betiere baldintza hauetako bat betetzen badute:

a) Modalitate horretako kirol-begiralearen titulua izatea.
b) Gutxienez denboraldi batez entrenatzaile gisa aritu izana.
c) Kirol-modalitate horretan kirolari gisa aritu izana gutxienez hiru urtez.

Ez da beharrezkoa izango aurreko denboraldietan aurkeztutako titulazioen egiaztagiriak aurkeztea.

## 19. OINARRIA. JARDUERAK

**1.** Jardueren esparrua izango da Eskola Kirolari buruz Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak finkatzen duena.

**2.** Hona hemen deialdi honetan eskainitako lehiaketa jarduerak::

- Aerobica
- Xakea
- Atletismoa
- 3kako saskibaloia
- 5/3kako saskibaloia
- Saskibaloia
- 7ko eskubaloia
- Igeriketa
- Igeriketa sinkronizatua
- Orientazioa
- Padela
- Patinaje artistikoa
- Patinaje lasterketak
- Eskupilota




- 5eko eskubaloia
- Hondartza-eskubaloia
- Beisbola
- Txirrindularitza
- Krosa
- Herri kirolak
- CrossTraining-Herri Kirolak
- Kirol eskalada
- Esgrima
- Eski alpetarra
- Frontenisa
- Areto-futbola
- 7ko futbola
- 11ko futbola
- Gimnastika artistikoa
- Gimnastika erritmikoa
- Gimnastika tranpolina
- Hockeya
- Patin hockeya
- Gurpil-lerroko patin hockeya
- Judoa
- Karatea
- Borroka
- Udal mailako kirol anitza
- Zesta-punta
- Pala
- Trinketa
- Esku pilota trinketa
- Euskal pilota
- Arrantza
- Piraguismoa
- Arraunketa
- Roller Freestyle
- Rugbya
- Salbamendua eta Sorospena
- Skateboard
- Sokatira
- Taekwondoa
- Tenisa
- Mahai-tenisa
- Arku-tiroa
- Triatloia
- Txikiboxa
- Bela
- Hondartza-boleibola
- Boleibola
- 3ko boleibola
- Waterpoloa

**3.** Entrenatzaileak, modalitatearen arabera:

a) Taldeka lehiatzeko jarduerak:
Talde bakoitzeko entrenatzaile baten izena eman behar da nahitaez, eta talde bakoitzeko entrenatzaile laguntzaile edota praktiketan den entrenatzaile baten izena ere eman daiteke. Herri Kirolen kasuan, ordezkariaren figura bakarrik izango da derrigorrezkoa.




Entrenatzaile laguntzailea da hezkuntza- eta entrenamendu-saioak (entrenamenduak eta lehiaketak) diseinatu, zuzendu eta egiten laguntza eta lankidetza eskaintzen duen pertsona, entrenatzaileak horiek egin ezin dituenean.
Praktiketako entrenatzailetzat hartuko da kasuan kasuko modalitatean EKBL edo I. mailako ikastaroa, erdi-mailako hasierako ikastaroa edo parekoa, gutxienez, egiten ari den pertsona.

b) Banakako lehiaketa jarduerak:
Kirol bakoitzeko entrenatzaile nagusi baten izena eman behar da nahitaez, gehienez lau (4) inskribatu daitezkeelarik. Eskaladaren kasuan, ordezkariaren figura baino ez da derrigorrezkoa izango.
Gainontzeko teknikariak, entrenatzaile laguntzailetzat edo praktiketan ari diren entrenatzailetzat joko dira.
Kasu bietan ratioa izango da entrenatzaile bakar bat 10 kirolariko.
Pertsona batek ezingo du jardun entrenatzaile nagusi gisa bost entitate baino gehiagotan.

c) Hala taldeko lehiaketa-jardueretan nola banakoetan, inork ezingo du izena eman entrenatzaile (laguntzaileak eta praktiketan ari direnak barne) edo delegatu gisa, baldin eta ez baditu gutxienez 17 urte betetzen denboraldia bukatzen den urtean.

**4.** Kategoriak eta generoa:

a) Honako hauek izango dira Bizkaiko Eskola Kirola programaren lehiaketa jardueren kategoriak:

| | |
|---|---|
| BENJAMINAK: | 2017/2018an jaiotakoak |
| KIMUAK: | 2015/2016an jaiotakoak |
| UMEAK: | 2013/2014an jaiotakoak |
| KADETEAK: | 2011/2012an jaiotakoak |
| GAZTEAK: | 2009/2010ean jaiotakoak |




b) Izena eman duten guztiek adinaren arabera dagokien kategorian parte hartuko dute.
c) Salbuespen gisa, adinaren arabera dagokienaren goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahalko dute, honako baldintza hauek betez gero:
   1) Dena delako lehiaketari dagokion hurrengo urtean jaio izana.
   2) Taldekako lehiaketa jarduera izatea. 7ko futbola eta 11ko futbola lehiaketa jarduera bat direla ulertuko da. Berdin gertatuko da 5eko eskubaloiarekin eta 7ko eskubaloiarekin, 3kako saskibaloia, 5/3kako saskibaloia eta saskibaloiarekin, eta boleibolarekin eta 3kako boleibolarekin.
   3) Egoera horretan izena eman duten kirolarien kopurua ez dadila izan taldekide guztien % 50 baino gehiago.
   4) Gorako hurrengo kategoria eta ondorengoa ez bateratzea lehiaketa egituratzen denean.
   5) Adin txikikoaren aitaren, amaren, legezko ordezkariaren edo zaintza duen pertsonaren idazkia, ikasleari adinaren arabera dagokiona baino maila bat gorago parte hartzeko baimena ematen diona eta jarduera horretatik sor daitezkeen arriskuen erantzukizuna euren gain hartzen dutela adierazten duena (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean).
   6) Izena eman nahi duen aurreko kategoria, kirol modalitate horretan, konbokatua egotea.
   7) Halaber, errendimenduari ekiteko lehiaketa izanez gero (R ligak) Futboleko modalitatean (F7 eta F11), eredu ofizialaren arabera (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean) ziurtagiri bat aurkeztu beharko da egiaztatzeko eskola-umearen adin biologikoa eta parte hartu nahi duen lehiaketa bat datozela. Osasun arloan eskumena duen langile batek (mediku batek) eman behar du ziurtagiri hori, eta derrigorrezkoa izango da ume mailako 1. urteko kirolariak ume mailako 2. urteko taldeetan inskribatu ahal izateko, aipatutako lehiaketetan.




d) Behin lehiaketa hasita, modalitate jakin batean bere adinari dagokiona baino goragoko kategoria batean parte hartzen duen kirolariak ezin izango du denboraldi horretan dagokion kategorian edo beheragoko batean parte hartu modalitate horretan.
Salbuespen gisa, taldeko kirol-modalitateetan, umeen kategoriako bigarren urteko ikasleek euren entitateko kadete-lehiaketako jardunaldien % 50ean parte hartu ahalko dute. Kasu horretan, ikasle bakoitzak partida bakar batean parte hartu ahal izango du asteburu bakoitzean.
Kirolari batek kirol batean dagokiona baino maila bat gorago parte hartzeak ez du esan nahi beste kirol batzuetan lehiaketa jardueretan parteko hartzeko adinez dagokion maila galduko duenik.

e) Foru dekretu honen eta ondorengo lehiaketarako araudi orokorraren ondorioetarako, mutilen taldetzat joko dira taldekideen artean gehienez ere emakumezko kirolari bat duten taldeak.
Modu berean, nesken taldetzat joko dira taldekideen artean gehienez ere gizonezko kirolari bat duten taldeak.
Ondorioz, mistotzat joko dira taldekideen artean gutxienez ere beste sexuko bi kirolari dituzten taldeak.

## 20. OINARRIA. PARTE HARTZE BITXIAK

**1.** Eskola Kirolaren jarduerak antolatzeko orduan entitateen barruan gerta daitezkeen inguruabar ezberdinak direla eta, Bizkaiko Eskola Kirola 2026/2027 programaren parte hartzeko lehiaketetan parte hartu ahal izango da (guztietan, R izenekoetan izan ezik) hurrengo kasuetan eta hurrengo baldintzak betez gero:

a) Adinez dagozkienak baino beheragoko ikasketak egiten ari diren kirolariek euren ikasturteko ikasleek osatutako taldean parte hartu ahal izango dute. Aldi berean, eta eskola adinean den kirolaria izena emango duen taldea baino goragoko kategoria batekoa denean, egiaztagiria aurkeztu behar da, kirolaria zein mailatan da-





goen matrikulatuta adierazten duen ikastetxeko zuzendariak edo ikasketa-buruak emana (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean), eta baita idatzia ere, egokitu zaien lehiaketaren azken faseari uko egitekoa (eredua hau ere eskura **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean).

b) Entitate batek gehienez hiru (3) kirolari inskriba ditzake berez dagokien maila baino bat beheragoko taldean, baldin eta entitate horrek ez badu talderik aurkezten haien mailan eta eskola-umeok aurreko urtean jaioak badira. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute, uko eginez kasuan kasuko lehiaketaren azken faseari (eredua eskura jarri zaie entitateei **www.bizkaia.eus/eskolakirola** helbidean).

   Azken fasea 4 jardunaldi baino gehiagokoa duten lehiaketetan, beroni uko egin dioten taldeek ere parte hartu ahal izango dute egoki jotzen bada. Taldeok ezingo dute txapeldun geratu, eta beraz federazio bakoitzak erabakiko du nola antolatu, aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostu ondoren.

c) Talde mistoetarako lehiaketarik ezin bada sortu, talde mistoak nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, taldekide gehienak zein sexutakoak diren kontuan hartuta.

**2.** Era berean, jokalekuan ezin daitezke aldi berean egon a eta b kasuetan dagoen kirolari bat baino gehiago.

## 21. OINARRIA. IZENA EMATEA ETA LEHIAKETA EGUNAK

**1.** Taldeen zein parte hartzaileen izena emateko, ondorengo webgunea erabil daiteke: **www.bizkaia.eus/eskolakirola**

Era berean, Kirol etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27 Bilbo-48003), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea, 30 1., aste-




lehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

